

**K**...eta!  
**Kitto!**

2019-V-10 1099 zkia.



# Herri osorako EUSKAL JAIK

#EMAN BIDEA  
**EIBARRi**  
 #UNA GIPUZKOA FUERTE

EIBARREK AURRERA EGITTEKO  
 MENDIKUTE ALKATE

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO  
 Epia: maiatzak 16, eguena

Bulegua: Toribio Etxebarria 22  
 11:00 - 13:00 eta 18:00 - 20:00





# IES UNIBHI

## HEZIKETA ZIKLOAK

A ETA D EREDUAK

Aurrematrikula epea: Ekainaren 3tik 14ra  
Matrikula epea: Uztailaren 11tik 17ra

### PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

- Praktikak Atzerrian (ERASMUS+)
- Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI)
- Ikaskuntzak Eszenatokiak
- Osasunarentzako Programa
- Enpresa Birtuala
- UNI Encounter
- UrratsBat
- Hizkuntzaren Normalkuntza
- Nazioarteko Ikasle-trukea
- Ikasle Lan Poltsa



[www.facebook.com/iesunibhi/](http://www.facebook.com/iesunibhi/)



[uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus)

[www.uni.eus](http://www.uni.eus)  
[idazkaritza@uni.eus](mailto:idazkaritza@uni.eus)  
Tel. 943208444

### HEZIKETA FISIKOA

- \* Egokitze Fisikoa (*Goi maila*)
- \* Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza (*Goi maila*)

### INFORMATIKA

- \* Sistema Mikroinformatikoa eta Sareak (*Erdi maila*)
- \* Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (*Goi maila*)
- \* Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)
- \* Web Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)

### MARKETING ETA MERKATARITZA

- \* Merkataritza Iharduerak (*Erdi maila*)
- \* Nazioarteko Merkataritza (*Goi maila*)

### ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

- \* Administrazio Kudeaketa (*Erdi maila*)
- \* Administrazioa eta Finantzak (*Goi maila*)  
(goizez eta eskaintza partzialen arratsaldez)

ATE IREKIAK  
Maiatzaren  
18an  
(10:00-13:00)



## HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa: maiatzak 18  
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 65  
[amaia@imh.eus](mailto:amaia@imh.eus)

Webgune berria!  
[www.imh.eus](http://www.imh.eus)



## INGENIARITZA GRADU DUALA

Informazio saioa: maiatzak 18  
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 64  
[ingeniaritza.ehu@imh.eus](mailto:ingeniaritza.ehu@imh.eus)

Webgune berria!  
[www.imh.eus](http://www.imh.eus)





Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzio@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarte@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MINBERA.**- Mina izateko joera duen gorputz atala. Minduta. "Minberia-minberia daukat atzaparreko ebagixa". Min handia ematen duena. "Haginekua eta belarriko miña oso minberak dira".

**MINBERATU.**- Gorputz atalen bat minduta geratu edo utzi. Gaztelerazko 'dolorido'. "Larregi ibiltzetik dator oiñak minberatzia".

## astean esanak

"Gaur egungo herri primitiboetan arreta jarriz, konturatuko gara orokorrean bizitza oso baketsua daramatela. Horregatik, bertako batek besteei gailentzeko asmoa agertzen badu eta oldarkor jartzen bada, txinpanzeen pareko agresibitatea erakutsiz, zelan erantzun kartzelik eta polizia-rik ez badute? Tribuko ardura dutenek gainetik kentzea erabakiko dute, hau da, hiltzea. Tiranizidioari esker jarraitu dezakete euren bizitza lasaiarekin. Elkarrekin bizitzeko arauak errespetatzean bizirik jarraitu dezakete"

(RICHARD WRANGHAM, ANTROPOLOGOA)

"Euskal toponimiarekin eta literaturarekin lotutako izen den-denak emakumezkoentzat zein gizonezkoentzat izan daitezke. Txindoki ez da ez gizona ez emakumeena. Gure mitologian bai eguzkia eta bai ilargia emakumezkoak dira. Herri latinoetan eguzkia gizonezkoa da, eta ilargia emakumezkoa. Baina Euskal Herrian, ez. Hori gure animismo zahararekin lotuta dago. Gaur egun zabaldua dago Eki mutila edo neska dela, eta Ekiñe neska. Eta Eguzki neska edo mutila dela, eta Eguzkiñe neska. Benetan Eguzki eta Eki nesken izena beharko lukete, gure mitologiari begira. Baina herriak du azken hitza"

(JOSEBA AURKENERENA, IRAKASLEA)

"Fagor enpresako oinarritzko postuetan, langile batek 40 urte bazeraman beharrean, haren semeak 30 puntu zituen lanean sartzeko, eta 'seme' ez zen batek, bost urteko esperientziarekin, 5 puntu bakarrik. 1996tik 2003ra Fagorrek mila bazkide berri kontratatu zituen, gehienak ikasteko ahaleginik egin gabekoak. Enpresa pribatu batean horrelako jendea kontratatzen badut, ez da bizitza osorako, baina kooperatiba batean bai. Gainera, 18tik 35 urtera artekoak kooperatibisten %30 baziren ere, bajen %45 euren zen, ia erdia iraupen txikikoak. Enpresak lan-osasunean inbertitu zuenean, bajak handitu egin ziren"

(IMANOL BASTERRETxea, EKONOMILARIA)

## San Isidro Eguna ospatuko dabe eguaztenian Arraten

Maiatzaren 15ian ospatuko dabe Eibar eta inguruko basarri-tarrak euren patroiairen omenezko jaixa Arraten, goizetik hasiko dan programaziñuarekin: 11:00etan, bertsolari eta trikitilarixen parte-hartzia izango daben meza nagusixarekin hasiko dabe eguna. Ondoren, prozesiñua eta aureskua egingo dira, Kezka Dantza Tal-diaren eskutik. Jarraixan, txakoliña, sagardaua, gaztaia eta aire librian hazittako basatxerri ezaugarrixa daken txerrikixen dastaketia egingo dabe. Eguardixan, 12:30xetatik aurrera jokatu ko da San Isidruetako XVII. Aizkolari Txapelketia, harrijasotzaillien saiuaekin tartekatuta eta, hori amaittu eta gero, Kantabria jatetxian bazkalduko dabe. Bertsolarixak eta trikitilarixak girotuko dabe bazkalostia eta arratsaldian, 17:30xetan hasiko diran idi-demak agurtuko dabe jairako preparau daben egitaraua.



## Asteburu bete-betia Urkizun, Galiziako Etxekuen jaixeri esker



Donostitik etorritako Centro Extremeñuak aurre egin zetsen eurixari. **Malen Jainaga**

Aurten be asteburu osuan nagusitu dira olagarro usaiña eta Galiziako musikia eta dantzak Urkizuko parkian, As Burgas Galiziako Etxekuen eskutik ospatu diran XXXVI. Dia das Letras Galegas jaixetan. Barixaku arratsaldian hasi eta domeka illuntzera bittartian egunero egon zan jaixarekin bat egitteko aukeria, antolatzaillien eskutik egin ziran era guztietako ekitaldixerri esker. Bestalde, eta jaixak agurtu aurretik, jai batzordekuak telebista baten zozketia egin eben eta zenbaki saritua 0976 izan zan. Lehen erretserba, barriz, 0928 da eta bigarrenena 0348. Irabazliak Galiziako Etxera jo bihar ko dau sari billa.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

**CAPI**  
 www.capiestetica.es

**BERRIA!!!**  
**BEGI**  
 ingurunerako tratamendua

**LIFTING**  
 tratamendua

**BETILE LUZAPENAK**

**LIFTING**

**LASER DEPILAZIOA**  
 5 saiouetarako **BONOA 99€**  
 Hanka osoak + iztarreak  
 + besapeak 95€

Hanka osoak 60€      Bizkarra+Lunbarra 50€  
 Iztarreak+Besapeak 50€      Expaina/Begitarrea 10€  
 Bularra+Abdomena 50€      Zona/saioko 30€

**FM** Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

**EIBAR**  
 Beilatokia  
 Funeuskadi Eibar:  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
 Beilatokia:  
 SIGMA Industrialdea  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko  
 erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51      www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze  
 Taldea

**GRUPO**  
**Funeuskadi**

## Gaur jokatu dabe Mister Euskadi titulurako lehia

Euskadiko mutil guapuenaren tituluarakin etxera bueltatzeko esperantzarekin lehiatuko da Julen Ortega 18 urteko eibartarra gaur iluntzean, Santurtziko Serantes Kultur Aretoan 21:00etan hasiko dan Mister Euskadi galan. Mister Eibar titularen jabe dan gaztiarekin batera, Mister Turismo Spain Galan Euskadi ordezkatu nahi daben beste "mister" batzuk parte hartuko dabe gaurko ekitaldixan. Hain zuzen be Durango, Abadiño, Sopela, Santutxu, San Adrian, Rekalde, Portugalete, Audio, Bastida, Irun, Indautxu, Getxo, Billboko Alde Zaharra, Bermeo, Basurto, Basauri, Abando Artaza, Arrigorriaga, Alonsotegi eta Algortako ordezkariak. Hórretako hiru aukeratuko dittue lehiaketako arduradunak, azaruan egingo dan galan Euskadi ordezkatzera juateko.



## Museuen Egunaren inguruko jarduerak antolatu dittue



Datorren eguenian, 19:00etan, "Maisu arma-ginak, urdinez jantzitako artisauek" ikus-entzunezkoa eta jokua aurkeztuko dabe Armagintzaren Museuan. Ekitaldixa maiatzaren 18xan ospatzen dan Museuen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dabe eta, horrekin batera, bestelako jarduerak batzuk be egingo dira: maiatzaren 18xan bertan, 17:30xetan, ordu biko iraupena izango daben errealidade birtualerako betaurrekuak egitteko taillarra egingo dabe (12 urtetik gorakuendako, elebidun) eta doako bisita gidatuak be eskinduko dittue (17:00etan euskeraz, 18:30xetan gaztelez) eta, gaiñera maiatzak 16, 17, 18 eta 19xan museuan sartzia doakua izango da ohiko ordutegixan. Taillarrerako zein bisitetarako aurretik izena emon bihar da 943708446 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzitta.

## autuan

### "ERREBAL BIZIRIK" KANPAINIA

Bezeruak Errebal kaleko denda eta tabernetara erakartzeko asmuarekin, "Errebal Bizirik" izeneko kanpaina ipiñi dabe martxan Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak. Kale horretako zein inguruko 43 establezimenduk egin dabe bat aste honetan abiatu daben kanpainaiekin eta, maiatzaren 25era arte horretako batian zeozer erosten dabenak, erosketatxartelak oparitzeko maiatzaren 27xan egingo daben zozketan hartuko dau parte. Erosketatxartelak kanpainaian parte hartu daben tokixetan gastatzekuak izango dira eta danera 12.000 euro banatuko dittue.



### PSE-EE ALDERDIXAREN EKITALDIXA

Gaur 18:30xetan hauteskundien inguruko ekitaldi politikua egingo dabe PSE-EE alderdikuak Txaltxa Zelaixan. Bertan parte hartuko dabe, bestiak beste, Fernando Grande-Marlaska, Idoia Mendia, Denis Itxaso eta Miguel de los Toyos.



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuarte  
 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
 Tel: 943 20 09 18  
 elkarte@etakitto.eus  
 www.etakitto.eus

### MAIATZA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

### EKAINA

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	



Barixakuero **...eta kitto!** astekaria  
 Hilero **Txikitto!** umeen aldizkaria  
 Astero **Berbetan** mintzapraktika taldeak  
 Itzulpenak eta diseinu-lanak

2019ko maiatza-ekaina  
**kultur eskaintza**

## Minbizixaren kontrako Eibarko I. Lasterketarako izen-emotia bixar hasiko da

San Juan jaixen atarixan, ekaiñaren 22xan egingo dan Minbizixaren kontrako Eibarko I. Lasterketa solidarioa aurkeztu eben eguazten goizian udaletxian antolatzaillik. Jardueria "Amaña es la caña" alkartekuak antolatu dabe, Eibarko Udalaren, SD Eibar Fundaziñuaren eta Alzola (Basque Water) enpresakuen laguntasunarekin. Agus Gomez "Amaña es la caña" alkarteko ordezarixak azaldutakuaren arabera, ekimenarekin gizartia gaixotasunarekin sensibilizatzia nahi dabe eta, horrekin batera, gaitzaren inguruko ikerketetarako dirua bildu. Hain zu-

zen be, Nafarroko Unibersidadian Ignacio Melero inmunologuak Minbizixaren inguruan egitten diharduan biharra diruz lagundu nahi dabe, AECC Minbizixaren Kontrako Alkartiak Gipuzkoan 160.000 euro batzeko bota daben erronkarekin bat eginda.

Lasterketia Untzaga plazatik abiatuko da, 11:00etan, eta nahi daben guztiak izango dau parte hartzeko aukeria. Ibilbidia 3,3 kilometro inguru izango dattu (Untzaga, Fermin Calbeton, Bidebarrieta, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria, San Andres Pasealekua, Legarre, Barrenengua, Isasi eta Untzaga).



ga). Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dabe, bixartik aurrera eta ekaiñaren 15era arte, honako tokixetan: AECC-Eibarko Minbizixaren Aurkako Alkartian (Ardantzakalioan), As Burgas Galiziko Etxian, Untzagako jubilau

etxian eta Urki, San Cristobal eta Legarreko jai batzordiak asmo horrekin preparauko dittuen tokixetan. Izena emoten dabenak 10 euro ordaindu biharko dattu eta trukian ekimenerako egin daben kamisetia eta dorsala jasoko dattu.

## Udaleko garbitzaillik lan-baldintza eskasak dittuela salatu dabe

Eibarko Udal eraikiñetako garbitzaillik konzentraziñua egin eben udaletxe parian eguazten goizian, euren "lan-baldintza eskasak dirala eta, protesta egin eta bizi daben egoeria salatze-ko". Garbitzaillik azaldutakuaren arabera, "Eibarko Udalak azpikontratauta dakan Brocoli enpresako bihargiñak gara eta, gaurko mobilizaziñuarekin, gure egoeria zein dan jakiñarazi nahi detsagu herritarrei. Izan be, Eibarko Udalak lizitaziñora etaratako garbiki-

ta-lanak 2018ko urtarrillian Brocolik eskuratu zittuanetik, hillero arazuak besterik ez doguz euki. Gure lan kargak ikaragarrixak dira eta lan baldintza partzialak dittugu. Gaiñera, enpresak txarto pagatzen deskuz ordainsarixak hillero: ez deskuez tokatzen jakuzen plusak pagatzen, bajaran gagozenian ez deskue ordaintzen edo txarto pagatzen deskue, hitzarmenian jasota daguzen igoerarik be ez dabe ordaintzen, bajak ez dira kubritzen... Gauzak holan, hillero gure nominak luparekin begiratu bihar izaten dittugu derri-gorrez eta nahitaez egin bihar dittugu erreklamaziñuak eta, gaiñera, enpresak ez dau iñolako neurririk hartzen hau konpontzeko. Eta, hori gitxi izango balitz, ointxe konturau gar enpresiak ez detsazela Geroari gure aportaziñuak pagatzen eta, hortaz, gure jubilaziñua errazteko biharrezkua dan pensiño plana ez dala betetzen". Horrekin guztiarekin kantsauta eta hasarre dagoz eta, bizi dabenaren ardura nagusixa Udalak dakala diñue, "bera dalako gure moduko enpresak kontratazen dittuana". Horregaittik, Udalari euren lan-eskubidien alde egitteko eta arazua konpontzeko eskatu detse.



### MAIATZA

**Maiatzak 11, zapatua**  
 BERBETAN irteera, Arantzazura.

**Maiatzak 17, barixakua**  
 BARIKAKUAK JOLASIAN. Jolasak Urkizun, 17:30etik aurrera.

**Maiatzak 21, martitzena**  
 ILLUNABARRIAN programaren barruan:

Baratze Bertikal tailerra, Alluitz Naturaren eskutik. 19:00etan ...eta kitto!-n.



**Maiatzak 21, martitzena**  
 HARIXA EMOTEN literatur tertulia.

Joseba Lozanoren "Larrutik ordaindua" liburua. 19:00etan Portalean.



**Maiatzak 28, martitzena**  
 BERBETAN programaren barruan: Gatzatu tailerra, Alluitz Naturaren eskutik. 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n.

### EKAINA

**Ekainak 1, zapatua**  
 MINTZA EGUNA Lapuebla de Labarcan. Autobusa Eibartik berbalagunentzat.

**Ekainak 11, martitzena**  
 BERBALAGUNen ikasturte amaierako afarimerienda.

**Ekainak 13, eguena**

BARIKAKUAK JOLASIAN, ikasturte amaierako jaialdia, Potx eta Lotx pailazozen eskutik. 17:30ean Urkizun.



**Ekainak 15, zapatua**  
 ONGI ETORRI IRTEERA, Bilbora: "Munduko arrozak".

**Ekainak 23, domeka**  
 SAN JUAN SUA. 23:00etan Untzagan. Dantza Garaikideak taldearen ikuskizuna.



**Ekainak 25, martitzena**  
 EUSKAL JAIALDIA, herri-kirol erakustaldia. 19:00etan Untzagan.

## Pensiño duin eta publikuak eskatzeko manifestaziñua deittu dabe bixarko

Eskualde maillako manifestaziñua deittu dabe Debabarreneko Pentsiodunen Plataformakuak bixarko. Pensiño duiñak eta publikuak eskatzeko herriko kaliak ziherkatuko dittuan manifestaziñua 12:00xetan hasiko da, Untzagatik. Antolatzailliak azaldu dabenez, Udal Hauteskundietarako kanpaiña hasi barri dala aprobetxau nahi izan dabe, "politikueri presiñua egin eta holan euren eskaerak erantzun deixen". Herritar guztiak, jubilauek ez eze gaztiak be, bixarko mobilizaziñuan parte hartzera animau nahi dittue, gaixak danori eragiten deskula atzera be gogora ekarritta.



## Ederto ibilli ziran Santa Kurutz jaixetan

Aurreko barixakua izan zan Santa Kurutz eguna eta, urtero lez, jaixa ospatzeko egitarau zabala prestau eben Gorosta-Mandiolako basarritarrak. Santa Kurutzeko ermittan ospatutako meza berezixekin batera, zapatuan zein domekan ume eta helduendako jolasak, herri-kirolak, musikia, dantzak eta beste hainbat jarduera egin zittuen eta, jakiña, umore onian eta primerako giruan ospatu zittuen auzoko jaixak. Jai-batzordiak saldutako errifen zozketan, zenbaki sariduna 554 izan da eta agertu da irabazlia.

## La Sallekuen ekitaldi berezixa hartuko dau Untzagak martitzenian

Ikasturte honetan egun berezi bat gogoratu-ko dabe mundu osoko salletarrak, 1719ko apirilaren 7xan euren fundatzaillia dan Salleko Joan Bataiatzaillia hil zala 300 urte bete ziran eta. Munduko beste toki batzuetan bezala, Eibarren be ekitaldi berezi bat egingo dabe hori gogoratzeko. Antolatzailliak aurreratu deskuenez, martitzenian, 11:30xetan, Eibarko La Salleko kide guztiak Untzagan alkartuko dira eta hantxe bertan eurak preparau daben koreografixia dantzatu eta manifestua irakorriko dabe.



# Eibarren 1.500 baietz!

## Errenta aitorpena

Euskaraz



## ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA  
[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)





FERNANDO SOLANA. "Aspaldiko oroimenak".



# Behin-behineko etena Errebalen Batzordean

**E**rrebal Plataformak, oposizioko alderdietako ordezkariak (EH Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi) eta udalean ordezkartzarik ez duten PP eta Elkarrekin Podemos-ekoek elkarrekin aurreko barixakuan egin zuten agerraldian aditzera eman zutenaz, Errebalen lanen inguruko jarraipena egiteko asmoz eratu zen batzordetik alde egiteko erabakia hartu dute, "proiektuaren inguruan egon diren gastuen inguruko datuak eskuratzeko PSE-EEK etenbarik ipintzen dituen traba eta oztopoekin" aspertuta. Hala ere, erabakia behin-behinekoa dela gaineratu zuten eta, behin Udal Hauteskundeak egin eta Udalbatza berria eratzen dutenean, berriz ere batzordera itzultzeko asmoa dutela aurre-



## BANDOA

Herritarrei jakinarazi nahi zaie 2019ko otsailaren 25ean Errebal Plataformak aho betez onetsi zen mozio bat aurkeztu zuela eta bertan Errebalen proiektuak sorrarazi dituen eta sortzen ari den gastuen zerranda eskatzen zuela.

- Halaber, egiaztatu, bi hilabetez biltzen aritu ondoren, zirkuluan mugitzen ginela, PSEk idatzi eta zuzenduriko gidoi baten inguruan, txosten eta legezotasun kontuekin zorabiatzen gintuzten bitartean.
- Eta –esaten dutenez– sei hilabeterako ekonomilari bat kontratatu beharra dagoela, aipaturiko lan hori aurrera eramateko.
- Gainera, Errebalgo gastuak zenbatekoak izan diren eta izaten jarraitzen duten ikusita, eta lehendik ere asaldatuta gaudela jakinda, ezin dugula, alegia, kontratazio horrek sorraraziko lituzkeen gastuak gehitu.
- Arrazoi horregatik Errebal Plataformak bere burua eskaini zuela artxibora jo eta bertan gaiari buruz dauden agiri guztiak miatzeko, lan horrek Udalarentzat inolako gasturik ekarri barik.
- Egiaztatu, eskaintza horrek era guztietako eragozpenekin egin zuela topo.
- Ulertezina iruditzen zaigula XXI. mendean gauden honetan eta, teknologiak izan dituen aurrerakuntzak kontuan izanik, aipaturiko eginkizuna errez egiteko moduko sistemarik ez egotea.
- EZ DAGOELA BORONDATE-POLITIKORIK betekizun horri ekiteko.
- Oharturik, bada, ondoko ebazpenera iristen gabela; alegia, erabili egiten gaituztela, gardentasun faltsua, EGIASKOA EZ DENA, saltzeko, aipaturiko batzordetik alde egiteko erabakia hartu dugu, hurrengo udal hauteskundeetatik sortuko den Udal Korporazio berriaren zain, BENETAN GARDENA izan dadila eta kerik salduko ez duela esperentzarekin.

### EGIAZKO GARDENTASUNA

### ORAIN ...eta KITTO



Sinatzen dugun ikerketa batzordeko kideak (denok, PSE izan ezik):  
ERREBAL PLATAFORMA, EH BILDU, EAJ-PNV, IRABAZI, PODEMOS, PP.



ratu zuten. Martxel Garate Plataformako ordezkariak esandakoaren arabera, "batzorde hau Errebalen inguruko proiektu guztiak denera zenbateko gastua sorrarazi duten jakiteko asmo bakarrarekin eratu zen, baina hasieratik trabak baino ez dizkigute ipini eta, behin eta berriz proiektuaren inguruko fakturak eskatu ditugun arren, orain arte ez dugu ezer lortu". Eskuratu nahi dituzten datuak 2019ko otsailaren 25ean aho batez onartu zen mozioan eskatu zituzten, baina oraindik ezer lortu ez dutela eta, PSE-EEren aldetik datuak lortzeko izaten ari diren oztopoak salatu zituzten eta, horrekin batera, sozialisten jarrera gogor kritikatu nahi izan zuten.

Horren aurrean, barixakuko agerraldian esan zituztenei erantzun eta gauzak argitzeko asmoz, **eguztenean PSE-EEK prentsaurrekoa eman zuen**. Miguel de los Toyosek esan zuenez, "eskatu dituzten datu gehienak, %90 inguru eman egin zaizkie. Eta besteak ez emateko arrazoiak ulertzeko modukoak dira: dieta eta beste hainbat konturen inguruko fakturak eskatzen ari dira eta, udaleko artxiboan gordeta egon arren, kontuan izan behar da 1999. urtetik hasi eta gaur arte pilotutako fakturak 10.000 baino gehiago izan daitezkeela eta hor ezer bilatzea ez dela berehala egiteko moduko lana".

Ekintzailea, aholkularia eta aktibista soziala, Josu Gomez Barrutiak proiektu ugari landu ditu eskubide ikasketak egin ondoren. Gainera, ibilbide oparoa izan du eta, sari ugari jasotzeaz gain, Rigoberta Menchu eta Barack Obama bezalakoekin elkarlanean jarduteko aukera eduki du. Berrikuntzan aditua, ekonomia zirkularraren aldeko jarrera du eta garapen lokalari buruzko liburua idazten dihardu. *“Eta, noski, Eibarren aurrerapenaren alde neure esku dagoena egingo dut”*, dio Sevillan bizi den eibartarrak.

## JOSU GOMEZ BARRUTIA (EKINTZAILEA):

# “Eibarrek baikortasunez begiratu behar dio etorkizunari”

**- Barack Obamarekin egoteko aukera izan zenuen Ekonomia Zirkularraren Munduko Goi-Bileran. Nola sortu zen aukera?**

2004. urtetik klima aldaketaren aurkako borrokan buru-belarri dihardut lanean maila pertsonalean, profesionalean eta enpresarialean. Izan ere, Al Gore Nobel saridunak eta Amerikako Estatu Batuetako (AEB) presidenteorde ohiak bultzatutako klima aldaketa programan txostengile moduan aritzeko aukeratu ninduten 2004an. Juan Verde ezagutzeko aukera izan nuen han, AEB-ko estatu idazkariordea eta Barack Obamaren presidentetza-kanpainaren nazioarteko zuzendaria izan dena, eta lagun handiak egin ginen. Obamak presidentetza utzi zuenean, ekonomia zirkularra babes- zuenez, ekimen honen enbaxadore izendatu ninduten eta horregatik eduki dut niretzat erreferentziazko den pertsona baten alboan egoteko aukera. Klima aldaketaren aurkako borroka, jasangarritasun-

naren aldeko apostua eta ekonomia zirkularraren eredu martxan jartzea berebizikoa da gure planetaren orainaldi eta etorkizunari begira.

**- Nolako esperientzia bizi izan zenuen Obamarekin?**

Obamak duen ezagutza, esperientzia eta ikuspegia hurbiletik ezagutzea zoragarria izan da. Ekonomia zirkularraren inguruan lanean gabiltzan 200 lagun inguru bildu ginen eta, Obamaz gain, Christopher A. Pissarides eta Finn Kydland ekonomia Nobel saridunak, Barry Parish fisika Nobel sariduna, Rosalia Arteaga Ekuadorreko presidente ohi eta Cristina Garmendia COTEC-eko presidentearekin ikasteko aukera eduki genuen. Hori bai, maila pribatuan Barack Obamarekin egoteko aukera izan zuten gutxienetako bat izan

“Obamak duen ezagutza, esperientzia eta ikuspegia hurbiletik ezagutzea zoragarria izan da”



nintzen, Ekonomia Zirkularraren Munduko Goi Bileran berarekin biltzeko aukeratu nindutelako.

**- Zer ikasi zenuen Obamarengandik?**

Asko ikasten dut berarekin topo egiten dudak bakoitzean: umiltasuna, interes partikularren gainetik dagoen estatu-ikuspegia, ikuspegi ezberdinak dituen jendearen artean kontsentsua eta elkarrizketa bilatzea, eta helburuak lortzeko konstantziarekin konprometzua edukitzea, besteak beste.

**- Zer da ekonomia zirkularra?**

Ekonomia zirkularrak ekodiseinuaren, ekoberrikuntzaren, berrerabilpenaren eta birziklapenaren aldeko apostua egiten du. Adibidez, Ecoalf enpresak Europa osoan saltzen den erropa egin du itsasoan dauden plastikoa berrerabiliz eta, ondorioz, lanpostuak sortu ditu eta ingurumenaren jasangarritasunaren eta aurrerapenaren alde egin du.

**- Ekonomia Zirkularrak nolako onurak ekarri ahal dizkio Eibarri?**

Ekonomia zirkularrari loturiko lanpostuen sorrera eta ekintzailatza berdea kontuan hartzekoa dira. Europar Batasunaren arabera eredu honek 250.000 lanpostu sortu ditzake aurten. Produktuen berrerabilpenak merkatu-lerro berriak eta merkatuen irekiera ekarri ditzake, kostuak aurrezteaz gain. Isobal bezalako proiektuek aukera berriak sortu ditzakete eta Eibarko industriak adi egon beharko luke. Lehenengo analisi fase batean aukerak aztertu behar dira eta gero fase experimentalera pasatu, aurrerapenaren eta berritasunaren bidea hartzeko.

**- Hauteskundeak ate joka ditudugu. Gertatzen dena gertatzen dela, ekonomia zirkularra bultzatuko dituzten politikak ezarriko direla uste duzu?**

Baietz espero dut. Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza sailak ekonomia zirkularraren aldeko apostua egin du eta horrela dago jasota Udalaren Plan Integralean. Udal gobernuak maila lokalean ekin behar dute, bai-

na aliantzak sortzeko eta laugarren industria iraultzaren inguruan munduan gertatzen dena aztertzeko aukera uzten dien ikuspegi lokala eduki behar dute. Uruguain ezagutu nuen Eduardo Galeano idazleak esan zuen jende txikiak, gauza txikiak egiten, mundu aldatu dezakeela.

**- Herriak iraganean industria oparoa izan badu ere, Eibar-ko langabezia-tasa %12,5 da gaur egun. Nola ikusten duzu herriaren orainaldia eta etorkizun hurbila?**

Eibarko langabezia-tasa handia bada ere, azken urteotan jaitsi egin da eta kontuan hartzekoa da hori. Datu hau eskualde mailan azertu beharko genuke, Euskadin krisiaren gogortasuna gehien jasan duen lurraldeetako bat izan baita. Hala ere, dinamizazio ekonomikoaren eta enpresarialaren aldeko apostua egiten da, baita lana sortzeko ere, baina baliteke herritarrek hortaz ez konturatzea. Horren adibide dira herrira iritsi diren proiektu enpresarialak edo azken urteotan finkatu den ehundura produktibo eta industrialak. Etorkizunera begira lau kontu hartu behar dira kontuan Eibarren lanpostu gehia-

**“Ekonomia zirkularrari loturiko lanpostuen sorrera eta ekintzailtza berdea kontuan hartzekoa dira”**

go sortu eta ongizatea bermatzeko. Lehenik, ekintzailtza-aren aldeko apostua egin beharko litzake. Bigarrenik, industria-digitalizazioaren eta berrikuntzaren lan merkatuan lehiakorrek izateko gaitasunak lortzeko formakuntza eskaintzea. Hirugarrenik, degradatutako espazio industrialak berreskuratzea garapen ekonomikorako eta lanpostuak sortzeko aukera bezala. Eta laugarrenik, gure ekonomiaren, industriaren gaitasun produktiboen eta indarguneen espezializazioa eta internazionalizazioa beharrezkoa da. Eibarrek Lanbide Heziketaren inguruko azoken eta Steam kompetentzia berrien (robotika, digitalizazioa...) formakuntzaren alde egin du irmoki, eta bide egokia dela uste dut. Udalak bultzatutako Lehiagune Foroak, adibidez, enpresen eta erakundeen arteko konplizitatea baliatu du inguruko enpresen



artean aukerak bultzatu, konektatu eta sortu ahal izateko gaur egungo testuinguru zailan. Bestetik, Eibar Business Market egitasmoak herria nazioarte mailan kokatu du eta Eibar espazio dinamiko moduan ikusarazten du inbertsioak erakarrit. Gainera, bertoko talentua atxikitzeko, enpresak hazteko aukerak erakartzeko eta mundu globalizatuan herria internazionalizatzeko Plan Integrala abiatu du Udalak. Eibarrek baikortasunez begiratu

behar dio etorkizunari, baina baita erronkekin ere. Beharrezkoa da erakundeen arteko sinergiak sortzea Erisonoko bigarren fasea martxan jartzeko; herritarren, udal gobernuaren eta enpresa sektorearen artean estrategiak zehaztea lanpostuak sortzen dituen herri-eredu aurrerakoi, inklusibo eta jasangarria garatzeko; eta hezkuntza esparruan ekintzailtza-aren aldeko apostua egitea etorkizuneko Eibarren motore bezala.



www.presttogo.com  
info@presttogo.com  
Deitu: 618 205 302



**UDAKO IKASTAROA K YORK-EN  
ETA MANCHESTER-EN**  
uztailaren 7tik 28ra

## **LAN ESPERIENTZIA UDAKO PROGRAMA LIVERPOOL ETA MANCHESTERREN**

- Adina: 18+
- Gutxieneko ingeles maila: B2
- Gutxieneko egonaldia:  
2 asteko gutxieneko lan-praktikak
- Eskaera, egonaldia baino 6-8 aste lehenago

## **OPOR IKASTAROA 50+ CHESTERREN**

- Hizkuntza eta gizarte programa
- Gutxieneko adina: 50
- Datak: Ekainaren 10etik 21era  
Abuztuaren 19tik 30era  
Irailaren 16tik 27ra  
Irailaren 30etik Urriaren 11ra



*Fernando Abanzabalegi  
 hartuko dabe goguan  
 Euskal Jaiko  
 antolatzailliak.*

**15 egun lehenago**

## **baina betiko espirituarekin**

Eguaztenian "Erraiak" dokumentalaren aurkezpen eta proiektziñuarekin abiatu zan 54. Euskal Jaixa. Baiña, ohikua danez, gaurtik domekara arteko programaziñuarekin batuko dittu egitarauko beste ekitaldi guztiak. Eibarko Klub Deportiboko antolatzailliak dioten moduan, "Eibar guztirako eta adin guztietako eibartarrentzat" osatu dan egitarauak bereziki euskaraz bizitzeko aukeria emongo deskun asteburua eskinduko desku. Basarrittar jantzitta kalera urteteko atzakixa ezinhobia be bada Euskal Jaixa primeran bizitzeko.

**K**alian Jolasian ekitaldixarekin abiatuko da gaurko egitaraua. Udaleko Euskara eta Gazteria saillaren eskutik, 17:00etatik aurrera, 5-8 urte bittarteko haurrak eta gurasuak Bizikleta Plazan jolasian jarduteko aukeria izango dabe, Astixako begiralien laguntasunarekin. Jolasak amaittuta, 18:30xak bueltan, **Zunbalain** emonaldixak dantzan egitteko aukeria eskinduko dau.

Gaurkuak **Euskal Jaiko Jaialdixarekin** hartuko dittu ordu gehixen, luze joko dau eta. Arratsaldeko 20:15etan hasi eta goizaldeko 03:00ak arte iraungo dau hiru talde batuko dittuan musika jaialdi hori. 2012. urtian Irlandako eta euskal folk tradizionalak nahastuta sortutako **Cloverwind** taldiak sustrai zeltako soiñuak hurbilduko deskue jaialdixaren hasieran. Or-

du eta erdiko saiua izango da eurena, afaltzeko orduaren aurretik, 21:45era arte iraungo dabena. 2008xan Azpeittiko lokal txiki batian sortutako **Egurra Ta Kitto** izango da jaialdiko bigarren taldea, hau be ordu eta erdiko saiurekin. 23:00etan hasiko dira jotzen eta 00:30xak inguruan amaittuko dabe. Etxekua izango dogu azken taldea, aurkezpenik bihar ez daben eta geratu barrik dabillan **Mugi Panderoa**: eibartarrak goizaldeko 01:00ak aldia hasiko dira eta gitxienez ordu biko saiua eskinduko dabe, 03:00ak arte edo.

### **Azokiak zapatu goiza hartuko dau**

Bixarko goiza eta eguerdi aldia hartuko dau, urtero lez, artisau eta basarritarren azokiak. 10:00etarako postu guztiak ipiñitta egongo dira Toribio Etxebarria kalian



*Herriko eta kanpoko 25 artisauk hartuko dabe parte bixarko azokan.*



*Talo-postuan Gure Esku Dago ekimenakuak egingo dabe biharra.*

eta arratsaldeko 14:00xak arte iraungo dau azokiak. Eibart alkartiak, Eibarko basarritarrak eta Debemenen eskutik antolatutako ekitaldixan guztira **25 artisauk** hartuko dabe parte (bisuteria, ehuna, zeramika, txalapartak, kosmetika, bitxigintza, larrua, brotxiak, kopiñak, papel matxe eta pateak moduko produktuekin) eta, horrez gain, Arrate Lizarralde saskigintza taillarra eskinduko dau. Eibarko **sei basarrik** eta Soroluzeko beste batek euren produktu onenekin izango dittugu kalian: *“Barazkixak izango dira nagusi, jakiña, eta gaztaia be ez da faltako, izan ardixena, ahuntzena edo ekologikua”*. Mandiola Gaiñekua, Loixola, Mendigoitxi, Zelaikua, Gisasola eta Sosolarekin, Soroluzeko Egotza izango da. Kale-animaziñua ez da faltako, Eibarko trikitilari gaztiekin. Eta gosiak erasotu ezke-ro, talo-postua be bertan izango dogu; Gure Esku Dago ekimenaren eskutik

Eguerdi aldian, bestalde, ohiko **herri-kirol jaialdixari** ekingo detse, Gabixola esatarixaren gidaritzapian eta Gorka Pagonabarraga eta Bittor Altube bertsoarixen parte-hartziarekin. Jon Loiola, Garbiñe Lopez de Uralde, Ruth Linaza eta Tubi haundixa izango dira herri-kirolarixak, eta herri-tarren eta eskolen arteko lehiaketiak ez dira faltako. Lastua jaso eta bota, jungura, trontzia, lokotx-batzia... hainbat kirolmota ikusi ahal izango da.

### Musika eta kantuak arratsalde-gabian

Arratsaldeko 19:00etan Eibarko Musika Bandak Euskal Jaiko **kontzertua** eskinduko dau Untzagan. Oin dala hiru urte hasi eta errekuperatu dan tradiziñuari jarraitu-



Kezkako dantzarixak Iruñeko Dugunakoekin izango dira Euskal Jaiko Dantza Jaialdixan.



*Cloverwind eta Egurra Ta Kitto taldiak joko dabe gaur gabian Mugi Panderoarekin. Behian, juan zan egueneko aurkezpena Deporren.*

ta, bost pieza interpretatuko dittu. Eta 19:30xetatik kantu-afarixa hasi bittarteko tartian **trikipoteua** egingo da, Eibarko trikitilari gaztien eskutik. 21:30xetan hasiko da **afari berezixa** karpan: *“Alkarte gastronomikuen eskutik bertoko basarrixetako produktuekin presatutako afarixa izango da. 11:00xetatik aurrera taldekako kantuak abestuko dira eta goizaldeko 01:00xetatik aurrera erromerixaren ordua izango da”*.

### Egun guztian dantzan egittek

Aukera hori eskinduko desku domekak, Euskal Jaiaren azken egunak. Betiko moduan, eguerdiko 12:00xetan, **Euskal Jaiko Kalejiria** egingo da Urkizutik Untzagaraiño: talde guztiak, gaiteruak, joaldunak, trikitilarixak... danak alkarrekin igoko dira Untzagara. 12:30xetan Euskal Jaiko **Dantza Jaialdixa** egingo da plazako jubiletxe aldian. Aurten Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka izango dira parte-hartzaille bakarrak, baiña dantza polit eta ikusgarrixak erakusteko gogo biziz: *“Nafarrak trokeo dantza barrixak amaittu dittue eta oin arte bazarrik Iruñean erakutsi dittuenak ekarriko dittue Eibarrera. Kezkakuak, gure aldetik, lau kontradantza erakusteko asmua dogu”*.



Kezkek 200 bat dantzari izango dittu ekitaldixan, *“gaur egun gurekin ikasten dabi zenak 400 bat izango badira be”*.

14:30xetan **herri-bazkarixa** izango da karpan, *“hori be alkarte gastronomikuen prestutasunari esker. 21 dira aurten laguntzen deskuenak”*. Horren ostian, behin arratsaldian guztiz sartuta, 17:00-etan **erromerixia** egongo da, Gathubi taldeko musikarixak eta Josu Garatek gidatuta, eta jubiletxe aldian egingo dana. 19:00etan **larrain-dantza** popularra egingo dabe Untzagan bertan handik ordu erdira Deportibo parera juan aurretik. Ohikua izaten da hor be larrain-dantza egittia eta aurten ez da faltako. Baiña aukeria aprobetxatuko dabe Deporreko Kultura Batzordekuak **Fernando Abanzabalegi** euren taldekidea izandakuari omenaldixa egittek: *“Musikia, dantza eta bertsuak batuko dittuan saia izango da. Asier Serranok, Mikel Arrillagak, Trunboik eta Kezkek hartuko dabe parte, beste batzuren artian”*.

*eva alberdi*

Zerbitzuaren helburua komunitatearen informazio, heziketa, formakuntza eta aisialdi beharrak eta eskaerak asetzea da, sarrera librea eta doakoa bermatuz

## Zerbitzu gutuna

**Azken egun hauetan Eibarko Udalak lau zerbitzu gutun argitaratu ditu webgunean.** Horien artean, udal liburutegiarena dago, eta dokumentu honekin gure zerbitzuaren inguruko informazioa zabaltzea espero dugu puntu hauek kontuan izanda: zerbitzuak, konpromisoak, erabiltzaileen eskubideak, erabiltzaileen tebebeharrak, herritarrek parte hartzeko bideak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko bideak eta dagozkigun araudiak eta legeak. Hau dena, zerbitzuaren kalitateari dagokionez, etengabeko hobekuntza lortzeko helburuarekin.

Juan San Martin Liburutegia Eibarko Udalaren zerbitzua da. Zerbitzu honen azken helburua komunitatearen informazio, heziketa, formakuntza eta aisialdi beharrak eta eskaerak asetzea da, zerbitzu horietara sarrera librea eta doakoa bermatuz.

**Misioa.** Herritarrentzat topaleku bilakatzea da, topaleku fisiko zein birtuala, liburutegien alorretan kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izateko: irakurketa eta etengabeko ikasketa sustatu, kulturaren hedapena bermatu, herriko fondoaren ikasketa eta

ikerketa erraztu eta informazioaren teknologietarako sarbide egokia izan.

**Bisioa.** Edozer ikasteko beharrezana asetzeko topalekua izan behar da Liburutegia, hau da, bere funtzio hezitzailea oinarrian izan behar du.

Liburutegia **informazio eta ezagutzaren sarbide** izan behar da, balio erantsia eskainiz gaur egungo informazio kanaletatik bereizteko.

Gure oinarrietako bat **irakurketaren sustapena** izango da; irakurketa ohiturak sortu eta finkatu, irakurketa elkarbanatzeko topalekua bilakatu, informatu, orientatu edota edozein euskarritan irakurketa erraztu.

**Balioak. Izaera integratzailea, aukera berdintasuna, heziketarekiko konpromisoa, izaera berritzailea** eta hiritarren **partehartzea** dira gure balioak modu labur batean azalduta.

Gutun osoa aztertu nahi duenarentzat, hemen webgunerako sarrera: <https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia/zerbitzu-gutuna>

*aitor buendia*

Martxotik uda hasi arte kontsumitu dezakegu Tuterako alkatxofa bere ezaugarri guztiekin. Ekainetik aurrera bere berezitasunek behera egiten dute

## Beti geratuko zaigu... Tutera!

**Eta konkretuki, bere alkatxofa.** Orain dela gutxi esperientzia zogarria bizitzeko aukera izan dugu Nafarroako Erriberan, **IGP (Indicación Geográfica Protegida) de la Alcachofa de Tudela y Reyno Gourmet** delakoari esker. Nafarroan Ebro ibaiak ureztatzen dituen lurra dira, Tutera inguruan daudenak hain zuzen, Tuterako alkatxofa ekoiztu duten eta ekoizten jarraitzen dutenak. Ekoizleek gogoratzen diguten moduan, batez ere oraintxe da barazki horren momenturik gorenena. Martxotik uda hasi arte kontsumitu dezakegu Tuterako alkatxofa bere ezaugarri guztiekin. Ekainetik aurrera lorea botatzen hasten da, eta ondorioz, ikuspegi gastronomiko batetik, bere berezitasunek behera egiten dute.

Beraz, betiko moduan, "La Ruta Slow" tik sasoiko produktu zogarria dela aldarrikatu nahi dugu. Beste leku batzuetatik ailegatzeko zaizkigun alkatxofak, Mediterraneo aldekoak esaterako, zapora desberdina daukate. Ez dugu esango txarrak direnik... "baina bere ph-a egosterako orduan, eguzkia, hezetasuna, lurra-zen ezaugarriak... direla eta, Tuterakoek ezhoiko kalitatea daukate", gogoratzen dute **Guillermo Agorreta** Tuterako "IGP Alcachofa" ko presidentea eta **Jaime Castelruiz** ekoizleak.

Ekoizleekin batera, Lodosako "Pedro Luis" bezalako konserba-enpresaren helburua, "kalitatearen aldeko apostua egitea da, bolumenari begira egon beharrean. Horrekin batera, gure lurraldea eta hemen bizi diren pertsonak defendatu nahi dtugu, ekoizle txikiak, eta lurra ematen digun produktua", dio **Pedro Luis Anton-ek**.

Bisita amaitzeko, Tuteran bertan dauden hainbat tenplu gastronomikotik pasatu ginen. Aurretik hiriburuan egon ginen Idoate anaien "La Alhambra" jatetxean. Eta Tuteran "Treintaitrés" jatetxean egon ginen. Berduretan oinarritzen den karta baten aintzindaria. Aurrean jarri zizkiguten plater batzuk jartzeko asmoa nuen hemen, baina uste dut onena bertatik pasatzea dela, benetan! Nafarroako ardoarekin egindako maridaje bikainarekin, eta kuriositate bezala, Tuterako alkatxofaren esentzia duen Lafer estiloko "Cacho Beer" artisau-garagardoarekin.

PD. Erribera barazkiak baino askoz gehiago da. Abenturen enpresa bat dago, "Activa Experience" (Cascante): Bardenetatik eta Nafarroako hegoaldetik irteerak eskaintzen ditu (buggy, quad eta 4x4). Oso dibertigarria!

# GAZTE EKINTZAILEAK

MAIATZA



GAZTEON!

Egilea: Malen Illarramendi  
...ETA KITTO!



## GAZTE EKINTZAILEAK

Orientazio hitza esparru askotan da funtsezkoa, baina dudarik gabe garrantzi berezia hartzen du lanari buruz ari garenean; are gehiago, gazteen artekoaz dihardugunean. Izan ere, ikasketak amaitu eta beharrea hastea izaten da gazte ororen ametsa, askotan bestela izaten den arren. Nondik hasi, ordea, bide malkartsu horretan? Zeri eman lehentasuna? Nora jo? Horiei eta antzerako galdera askori erantzuna emateko ari dira lanean DAITEKE bezalako enpresak.

Lan-orientazio aholkularitzaz diharduen enpresa da DAITEKE. Helburu nagusia lan bila edo lan-egoera hobetu nahian dauden pertsoneri laguntzea da. “Azken finean, guk erremintak ematen ditugu nork bere kabuz lana topatzeko gaitasuna izan dezan”, dio Maria Alonsok.

Nahiz eta gazteei zuzendutako enpresa izan, ez dira gazteak bertara hurbiltzen diren bakarrak. Izan ere, adin-tarte nagusiagoa dutenentzako programak ere burutzen dituzte, adin batetik aurrera ez baita erraza lan-merkatuan sartzea.

Gazteen artean buruhauste handia izaten da lehen curriculumak prestatzea, zaila delako nork bere gaitasunak identifikatu eta idaztea. Araceli Guerrero adituaren hitzetan: “Profil oso anitzak daude gazteen artean; batzuk, oso kualifikatuak daude eta oso curriculum landuak aurkezten dituzte; beste batzuk, ordea, oso pobreak dira”. Horrelakoak saihesteko eta hobetzeko xedearekin Maria eta Araceli Daitekeko langileek gazte horien curriculumak aztertu, eta formatuak eta edukiak behar dituzten aldaketak aholkatzen dituzte.

Nolanahi ere, kontua ez da curriculum bikaina izatea soilik, ezta gutxiagorik ere. Gaur egun-



*Maria Alonso eta Araceli Guerrero adituak dira lan-orientazio aholkularitzan.*

go enpresentzako oinarri nagusia gazteen jarrera da. Belaunaldi berriak oso prestatuta daude bai alor teknikoan eta baita praktikoan ere. Baina, horrek guztiak ez du ezer balio, “soft skills” deritzegun horiek (jarrerak) ez ba daude ongi garatuta.

Lan bila dabiltzan askok euren buruari etengabe egiten dioten galderaren erantzuna eman digute Maria Alonsok eta Araceli Guerrerok. Zein pausu jarraitu behar ditut lana topatzeko? “Ezer baino lehen ezinbestekoa da barne ezagutza lantzea. Lana topatzea norbere burua “saltzea” da; zu zara produktua, eta zuk nahi duzuna lan-merkatuan txerta-

tzea da. Curriculum ona izatea eta, era berean, plataforma digitaletan behar bezala kokatuta egotea ere ezinbestekoa da. Horretarako, kolokazio agentziak, ETT-ak... eta horrelakoez baliatu behar dugu. Azken urratsa lan-elkarrizketa ongi prestatzea da; seriozitatez eta zintzotasunez hartu behar dugu azken fase hori.”

Gaur egungo gizarte digitalizatuan, aurretik esandako “papezko curriculumak” ahaztu eta sarean jarri beharko genuke indargunea. Izan ere, bakoitzaren Interneteko irudia ona izatea funtsezkoa da lana aurkitzeko prozesua arrakastatsua izan dadin. “Lan-aukeraketa prozesu batean



Gure protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, hemen daukazu bideoaren esteka:  
<https://youtu.be/jUINvr75s4w>

baldin bazaude, askotan Googleen zure izen-abizenak idazten dituzte ikusteko zer daukazu zure sarean, interes berezia piztu dezakeena. Eta interesez hitz egiten dudanean, ez naiz Facebookeko zapatu gaueko argazkiez ari; ez. Enpresei langile bezala interesa piztuko dieten kontuez ari naiz; hala nola, LinkedIn-eko profila izatea. Horri guztiari 2.0 teknika deritzo; zuk daukazu nortasun digitala oinarrizkoa da lana topatzeko eta nortasun hori oso ondo zaindu behar da”.

Prozesu honetan barrena bidaiatu duten gazte askok etsi egin ohi dute lana aurkitzea nekeza dela ikustean. Profesionalek aholku bat ere eman nahi izan diete etapa hau igarotzen ari diren gazteei: “Ez ezazue amore eman, argi izan behar duzue prozesua ez dela erraza izango, eta egunero-egunero orduak dedikatu beharko dizkiozuela lan-bilatzeari honi”. Esaerak dioen bezala, “uzta, ereintzaren saria”.

Orain arte aipatutako guztiaz asko dakite Arkigreen enpresa osatzen duten Nagore Fernandezek eta Iñigo Retegik, prozesua euren azalean bizi izandakoak dira-eta. Gazte, ekintzaile eta lehiatsu adjektiboek ezin hobeto definitzen dituzte bi lankide hauek. Txikitako lagunak ditugu biak, ikastolan elkar ezagututakoak eta batxilergoraino elkarrekin ikasitakoak. Nork bere bidea hartu zuen unibertsitateko ikasketak hasi zituztenean; Iñigok aparejadore karrera egin zuen hemen; Nagorek, ordea, Bartzelonarako bidea hartu, eta arkitektura ikasi zuen bertan. Behin ikasketak amaituta, berriro ere txikitako lagunak bat

egin zuten Eibarren, eta nahiz eta bakoitzak bere bide profesionala hasita zuen, ez zuten etorkizunean elkarrekin lan egiteko aukera baztertu, momentu batean ere ez. Lagunartean edo beste edozein giro informaletan topo egiten zuten bakoitzean, “futuro socio” deitzen zioten elkarri. Sasoi hartan, eraikuntza arloaren krisia etorri zen, eta langabezia gelditu ziren biak. Hori aitzakiatzat hartuta, afari batean elkartu eta lehenengo harria edo ideia botatu zuten. “Hasiera batean gehien motibatzen gintuena enpresaren izena topatzea zen, baina konturatu ginen hori baino gauza garrantzitsuagoak genituela egiteke; hala nola, lanean hastea”, diosku Nagorek.

Buruari buelta asko eman ostean, gaur egun ezaguna den “Arkigreen” enpresa sortu zuten bi gazte hauek, beste txikitako lagun baten eskutik. “Hasieran ez geneukan toki finkorik lan egiteko, eta liburutegian edo gure

etxeetan biltzen hasi ginen. Askotan bezeroekin eta komertzialekin ere liburutegiko talde-lanen gelan biltzen ginen; ez geneukan beste erremediorik!”, dio harro Iñigok. Enpresa bezala dihardutenetik izan duten aldaketa edota garapen nabariena lantokia sortzearena izan da; edonon biltzetik, haien txoko fisiko propioa sortu eta bulegoa zabaldu zuten Bista Eder kalean.

Bi gazteek argi daukate: lan-sarea eta kontaktuak egitea ezinbesteko kontua da proiektu bat aurrera eraman ahal izateko. “Esperientzia zeukan jendearekin hitz egiten saiatu ginen, eta haiengandik ikasten. Aholkularitzetara ere hurbildu ginen aholku eske. Azken finean, zuk unibertsitatean ikasitakoari buruzko ezagutzak dituzu, baina fiskalitatea, marketina, komunikazioa... eta horrelakoak ere kudeatu behar dituzte enpresa batean”. Hala ere, denbora pasa ahala, eta lan-zama handituz joan zen heinean,



Adrian Cuadros, Nagore Fernandez eta Iñigo Retegik euren enpresa nola sortu zuten azaldu digute.

kontu horiek guztiak beste enpresa baten esku utzi behar izan zituzten.

Bere egunean Arkigreen sortzen bezala, gaur egun ere gazte ekintzaile askok hartzen dute enpresa propioa sortzeko erabakia. Horretan dabilen jendeari zuzendutako aholkuak eman dituzte Nagore eta Iñigok: “Debegesa moduko aholkularitza batek asko laguntzen du zure enpresak hasiera batean behar duen errealitate puntu hori lortzeko, baliabide-planak eginez. Bestalde, lehiaketa eta diru-laguntza handiak egoten dira, eta garrantzitsua da horrelakoetan parte-hartzea.”

Baina kontu askotan bezala, enpresa propioa izatean oro ez dela urre dio Iñigok, desabantailak ere badituela, alegia. “Nik beti esaten dut abantailak eta desabantailak bata bestearen osagarri direla. Adibide batzuk ipiniko dizkizuet ondo ulertu dezazuen: ordutegia zuk zeuk kudeatzen duzu nahi duzun malgutasunarekin, baina, era berean, eguneko 24 orduetan egon behar zara lan egiteko prest. Zuk burututako proiektu batek arrakasta izaten badu, izugarrizko poza eta ilusioa eragiten dizu horrek, baina porrot eginez gero ere erantzukizun osoa zure gain dago eta horrelako beste adibide asko aipatu ahalko nituzke”.

Ukaezina da bizi garen aro teknologiko honetan plataforma digitalak berebiziko garrantzia dutela. Nahiz eta Arkigreen enpresak web gunea eta hainbat sare sozial izan, “onartzen dugu asignatura pendiente bat dela guretzako sare-sozialetan aktibo egotearena, kontziente gara horrek asko lagun diezagukeela, eta ea politikoki martxan jartzen garen kontu horrekin”.

Dudarik gabe, ausardia, kementa, ekintzailtza... beharrezkoak dira enpresa bat sortzeko edota lan-bilaketan arrakasta izateko, baina, ahaztu gabe, orientazioak ere berebiziko garrantzia duela eginkizun horretan.



gaztekitto



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!



## Esloganak

**ASIER AZKUE**  
25 urte

Atzo “SÉ TU PROPIO JEFE. EMPRENDE”, zioen kartel bati begiratu nion. Krisia gertatu zenetik horrelako eslogan asko irakurri ahal izan ditugu. Hollywoodetik ere bere lana egin du, izan ere, azken urteetan “txirotasunetik” irten eta enpresari aberatsak egin ziren pertsonaia ugariaren pelikulak hortxe euki ditugu zineetan. Gizartearen eredu berriak.

Askotan esan izan zaigu “nahi izatea, ahal izatea” dela, baina argi dago, horrelako esloganak oso erakargarriak direla jende gaztearentzat. Alde batetik, alternatiba gisa agertzen zaizkigulako betidanik gure lan eskua saldu dugun ororentzat eta bestetik, urrez adornaturiko etorkizuna marrazten digulako.

Aurreko egunean gai honi buruz ikertzea bururatu zitzaidan eta irakurri nituen bizipen ugari hunkigarriak iruditu zitzaizkidan; proiektuak aurrera eramanez nahi eta porrot egin zuten pertsonen istorioak. Dena galdua. Istorio triste horien beste aldean bankuak ditugu, betiko irabazleak, alegia. Gaur ekintzaileak dira negozioa, bihar auskalo.

Zalantzan jarri beharko genituzke jatorria bankuetan dituzten alternatibak. Instagramerako balio duten esloganak kaltegarriak izan daitezke bere bizitzari aurrerapauso bat eman nahi dion edonorentzat; aitzitik, nork ez du sekula desiratu kapitalismoaren Olinpora heltzea? Begira zer ondo gelditzen zaion trajea Suits telesaileko protagonistari.

## Zazpi dominekin etorri dira Kalamuakoak Andorrako nazioarteko judo txapelketatik

Andorra la Vellan jokaturako ospe handiko nazioarteko judo torneoaren XX-VIII. edizioan 90 senior eta 120 kadetek hartu zuten parte zapatuko jardunaldian. Nekane Muguruzak zilarrezko domina irabazi zuen seniorretan eta brontzezkoaz jabetu ziren Markel Simon, Iker Cid, Eider Alberdi eta Ane Fuldain, azken bi hauek euren debutean nazioarteko proba batean. Domekakoan 450 parte-hartzaile batu ziren infantil eta alebin mailako lehiaketetan, eta hor Xuban Aldazabalek zilarra eskuratu zuen eta Alex Jimenezek brontzea. Kalamuakoek "Larragest Inmobiliariatik eskainitako laguntza guztia" eskertu nahi dute, "Eibartik irtetzerakoan agurtzera ere etori zirelako". Hurrengo irteera Kantabriara izango dute, Bansander Trofeoan parte hartzeko.



Kalamuako ordezkariak Andorrarako bidea hartu aurretik.



## Urbat-Urkotronik emakumezkoen senior taldea seigarren izan da Espainiako txapelketan

Talavera de la Reinan (Toledo) jokaturako 2. mailako Espainiako txapelketan izan dira Urbateko ordezkariak Euskal Herriko ligan hirugarren postuan amaitu eta gero. Behin gogearako plaza lortuta, eibartarrak 5-8 galdu zuten WP 9802 talde nafarrarekin, 12-13 Leioarekin (penaltiz azken segundoan) eta 21-3 irabazi zioten Carthagori. Bigarren fasean Talaverako etxeko taldeari irabazi zioten eta Gironako GEIEG-ekin galdu azken jardunaldian, txapelketa amaieran seigarren postuan sailkatzeko.

## Azken trena du Avia Eibar Saskibaloiak maila igotzeko

Gure herriko saskibaloia taldea aurten probintziako 3. mailatik 2.era igotzeko azken aukeraren aurrean dago. Iaz kanasta batengatik igo barik geratu zen eta gauza bera gertatu zaio aurten aurreko saiakeran. Asteburu honetan lau taldek borrokatuko dute postu bakkarraren bila: bihar finalerdiak Ipurua kiroldegian jokatuko dira (txapelketaren amaieran Eibarko taldeak sailkapen onena lortu zuelako) eta etzi igoera postua jokatuko dute eguerdiko 12:00etan Donostiako Bidebietan biharko bi irabazleek. Ipuruan Larramendi ILK eta Mondragon C-ren arteko neurketa izango da 16:30ean eta, handik bi ordura, 18:30ean, Avia Eibar Saskibaloiak Take Coach izango du aurkari

## Susaetak ez du Athletic-en jarraituko

Ekainaren 30ean amaituko du zuri-gorriekin egindako 22 urteko ibilbidea. Lezamara 10 urterekin joan zen eta, behin Lehen Mailan Athletic-ekin egindako hamabi denboralditan, 506 partidu jokatatu ditu (Bilboko taldeko historian partidu gehien jokatatu dituen bosgarren jokalaria da) eta 56 gol sartu. 31 urteko eibartarrak jokatzen jarraitzeko asmoa agertu zuen eguaztenean, talde hori zein izango den eta eskaintzarik jaso duen oraingoz ez badu jakinarazi ere.



## Manixek arrakasta lortu du Atletico Balearesekin ere

Iaz Balear uharteetako taldea larri zebilela-eta, beste askotan legez hara joan zen Javier Mandiola. Jaitsierako postuan zegoen taldearekin mailari eustea lortu zuen, aurretik Tudelanorekin eta Burgosekin lortutako bidetik, eta aurten 2. B mailako hirugarren multzoko lider dugu Atletico Baleares, liga amaitzeko bi partiduren faltan horrela amaitzeko nahiko aldearekin. 2. A mailara igotzeko promozioa jokatuko du eta, lider amaituta, aukera bikoitza izango du asmoa betetzeko. Ez zen lehenengo aldia Manixentzat, Eibarrekin ere lortu baitzuen 2. A mailara igotzea, Rayo Vallecanori irabazita.



## Ganix Rodriguez eibartarrak lidergoa berreskuratu du Gipuzkoako hiru-txirlo 50. txapelketan

Aretxabaletan aurreko zapa-tuan jokaturako seigarren jardunaldiko emaitzekin sailkapena irauli eta eibartarra lehenengo postura igo da, Angel Ibarluzea orain arteko liderra bi txirlora lagata. Hori bai, lehenengo hamarren artean ez da Asola Berriko beste ordezkariirik. Bikotekako sailkapenean, Alex Campos eta Ganix Rodriguez bigarren dira, Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea Elgoibarko San Migueleko ordezkariengandik bi txirlora; eta taldeka ere San Miguel

Asola Berriren aurretik doa, hor alde handiagoarekin, 11 txirlorera hain zuzen. Emakumezkoetan Sonia Gomez da eibartar onena, laugarren postuan, Carmen Cordero azpeitiarrarengandik bost txirlora. Alebinetan Asola Berriko Kepa Rodriguez da lehenengoa. Bihar Azpeitiko Garmendipen jokaturako da txapelketako zazpigarren tiraldia.

### Bolari Eguna

Gipuzkoako Txapelketaren amaieran, ohikoa denez, Bola-



Aurten Bolari Egunean omenduko duten hirukotea.

ri Eguna ospatuko dute: aurten ekainaren 1ean izango da, Elgoibarko San Miguelen. Jesus Mari Azpiazu "Txorti", Joxe Mari Azpiazu "Santa" eta Julian Loiola omenduko dituzte, egun horretako Lehendakari Saria jokatzear gain. Txapelketa horretako kanporaketak goi-

zeko 11:00etan hasiko dira, Gipuzkoakoan lehenengo 64 bolariaren artean. 14:30ean bazkaria (30 euro) izango da San Pedroko jatetxean eta, horren amaieran, omenduei oroigarriak ematearekin batera Gipuzkoako txapelketako sariak banatuko dira.



## Narbaiza eta Etxeberria nagusitu ziren Sportech Kopako rallyan

Azken zenbakian horren berri ematen zuen albistean lerro batek ihes egin zigun eta Escuderia Eibarko ordezkarien izenak ez genituen eman, bigarren eta hirugarren sailkatu zirenenak agertzen ziren bitartean. Iñaki Narbaiza eta Unai Etxeberria izan ziren Kopa horretako lehen rally puntuagarrian garaipena lortu zutenak. Zorionak, beraz, eibartarrei eta ea bide horretatik jarraitzen asmatzen duten.

## Final-zortzirenetako partidua foball-zaletuen final-laurdenetan

Azkena Adahi eta Chic aurrez-aurre izango dira berriro etzi 09:00etan, aurreko domekan liga txapelkunak 4-0 irabazi eta gero. Menperatu bai, baina oraindik ezin izan dute Chic kanporatu, talde bat erreprestatu behar eta bera izan delako zorteduna; hori gutxi balitz, zozketak neurketa bera agindu du Kopako final-laurdenetarako. Honakok izango dira bestelako hiru norgehiagokak: biharko, Larragest Sporting - Ipur Sagardotegia (09:00) eta Garajes Garcia - JMR Erreformak (10:30); eta etzirako, aipaturako errebantxakoarekin, Bar Txoko - La Jara R. Hiru (10:30). Final-zortzirenetako partidu lehiatuenetan Ipur Sagardotegiak Durango kanporatu zuen penaltietan, bana berdindu ondoren, eta Bar Txokok gauza bera egin zuen Feredu Solutionsekin 1-0 irabazita.

## Eibarko errugbilariak Araba Cup Seven txapelketa irabazi dute

Avia Eibar Rugbyko emakumezkoen taldeak jokaturako hiru partiduak irabazi zituzten, Ordizia, Getxo eta Gaztedi gaudituz. Horrez gain, gure herriko hiru neska Ordiziako taldearekin hartu zuten parte txapelketan. Bestalde, Avia Eibarko lau jokalaririk (Aleu Cid, Lucia Moya, Jone Agirrezabal eta Amaier Mayo) Euskadiko selekzioarekin hartu zuten parte Madrilen Sanse Scrum taldearen zelaian eta laurak hasierako 15ekoan izan ziren. Aurrekoek gain, hainbat eibartar izan ziren Nafarroan antolatutako txapelketa batean Gipuzkoako selekzioa ordezkatzeko, Bizkaiaren eta Nafarroaren selekzioekin lehiatuz.



Artxiboa

## Astelenan iraganera itzuli ziren Gallastegiren omenaldian

Aurreko domeka goizean omenaldi xumea, baina polita aldi berean, jaso zuen urtarrean hil zen Asoliartzako handiak. Katedralak aspaldiko era, Miguel Gallastegi pilotaria zeneko sasoiara, eraman zintuen bertan bildutakoak hainbat keinurekin: jaialdia goizeko 11:30ean hasi zen, angelusa errezatu zen 12:00etan, pilotariak alkondara zuriekin jokatu zuten, epaileek amerikana jantzi zuten... eta izan zen bi hiru-

ren aurkako partidua ere. 18 tantora jokaturako lehenengo neurketan, Santxok 16an laga zuen Ioritz Egiguren. Bigarrenean, Titin III.ak eta Merino II.ak amore eman behar izan zuten, eurak ere 16-18, Olló, Sanchez eta Narbaiza eibartarraren aurrean. Ohorezko sarkoa Martinez de Irujo pilotari-ohiak egin zuen, bera ere zuriz jantzita eta Gallastegi izenarekin. Bi partiduen artean hainbat opari partekatu zituzten:



horrela, Gallastegiren familia-koek (haren hiru seme-alabak egon ziren frontoian) Eibarko Klub Deportiboak euren aitari emandako plaka itzuli zioten klubari eta, bestalde, De los

Toyos alkateak eta Itxaso Kirol diputatuak familiari emandako Gallastegiren kuadrua Astelenan lagatzea erabaki zuten. Xabier Euskitzen hainbat bertso eskaini zion pilotari handiari.

## Klub Deportiboko hiru ordezkari Euskadiko squash txapelketan

Gaur eta bihar jokatu dira Gasteizko Mendizorroztako Beti Jai frontoietan Euskadiko squash txapelketaren edizio berri bat. 36 parte-hartzaile izango dira, tartean Alberto Ferreiro, Sergio Salgado eta Miguel Cabanillas Deporreko ordezkariak. Gaur lehenengo bi faseak izango dira jokoa eta bihar finalerdie eta finalari helduko zaie ordua.



## Camina Deporreko pilotariak partidua du gaur Astelenan

Federatuen partiduekin hasiko da gaurko jaialdia Astelena frontoian eta, jarraian, Pilota Eskolakoen arteko bi neurketa izango dira. Kade-teen 2. mailako partiduan, Eibarko Klub Deportiboko Caminak Amezetakako Zazpitturri klubeko Agirretxe izango du aurrez-aurre buruz-buruko txapelketan aurrera egiteko. Pilota Eskolakoen arteko neurketak honakoak izango dira: Basaras-Zabala vs Jauregi-Las Heras eta Varona-Manero vs Usobiaga-Del Rey.



## Deporreko mendizaleek osatu dute Ezkabako lhesaldia aurreko zapatuko 4. etaparekin

Sorogain eta Urepel lotu zituen Ezkabako lhesaldiaren laugarren etaparekin amaitu dute urtarrean hasitako egitaraua. Hilabete horretan egin zituzten lehen bi etapak eta otsailean hirugarrena. 37 laguneko taldea batu zen aurreko zapatu goizean 14 kilometro eta erdiko azken ibilbidea egiteko eta gehienek, aukeratu ahal zituzten bideetatik, Adira doana hartu zuten: "Sorogaindik Odiako errekatik Aratungo mendilepora igota. Aditik Isterbegi tontorrera egin genuen gero eta, Xalbadarren bordatik, Urepelera jaitsi ginen".



## Mikel Mujika 4. da Euskaldun Torneoan

Bergarako txirrindularia Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza taldeko ordezkari onena da sailkapen guztietan oar arte jokaturako proben ondoren. Laboralkutxa taldeko Mikel Paredes lider-rerengandik zortzi puntura dago Euskaldun Torneoko sailkapenean. Espainiako Kopan, bestalde, 57. postuan dago, Valenciaga Oroitzarrea bereganatu zuen Iñigo Elozegi 11.ean dagoen bitartean.

Tindufen (Aljeria) dagoen Saharako errefuxiatuen esparruan astebete pasa du Maribel Gurrutxagak alabarekin eta Madrilgo lagun batekin. Hunkituta bueltatu da Eibarrera, desertuan bizitako esperientzia burutik kendu ezinik. Bere familiak aspalditik jaso ditu udan Saharako umeak eta aurten ere horrela egingo dute. Iaz bezala Lahsan txikiak hilabete bi pasako ditu Eibarren, "eta bere anai bikia ere etortzea gustatuko litzaiguke". Urtero ehundaka ume saharar etortzen dira Euskal Herrira, baina Maribelek umeak etxean hartzeko familiak falta direla dio. Gai honen inguruan informazio gehiago jasotzeko Txonta kaleko 42. zenbakian egoitza duen Eibar-Sahara Elkartera jo daiteke.

**- Zer lotura duzu Sahararekin?**

Niretzat lehen aldía izan da Saharako errefuxiatuen esparru batean, baina Deban bizi den ahizpa batek 2001.ean Saharako ume bat ekarri zuen udan eta harrezkero familia bereko hainbat ume etorri dira bere etxera (lehendabizi etorri zen ume horren iloba, bi ahizpa...). Nire ahizpak, koinatuak eta ilobek lan handia egin dute Sahararen alde (liburuak saltzen, elikagaiak batzen...), baina nire ahizpa eta koinatua nagusitu egin dira eta lan horiek nekezak egiten zaizkie. Bestetik, nire alabak Saharako ume bat ekarri zuen iaz, Lahsan. Normalean 9 edo 10 urteko umeak etortzen dira, baina bera 8 urterekin etorri zen osasun arazoak zituelako. Nire ahizpak ekarri zituen bi ahizpa horien neba da Lahsan. Ahizpa horiek 25 eta 21 urte dituzte orain eta seme-alabak dituzte dagoeneko. Bitxia da, Saharako ume askori adina galdetuz gero jaiotza urtea zein den esaten dizute, baina batzuk ez dakite zehazki zein urtetan jaio diren. Esan bezala, gure familiak ekarri



**MARIBEL GURRUTXAGA:**

**"Saharako errefuxiatu askok hemendik bidaltzen diegun laguntzari esker jaten dute"**

dituen ume guztiak familia berekoak dira eta gutako norbait hara joaten den bakoitzean euren etxera joaten da. Guretzat eroso da, hemen egon diren gazteek gaztekeraz egiten dutelako eta urte osoan zehar tratua mantentzen dugulako telefono bitartez. Hona etorri diren umeen amak, Jadyetuk, 47 urte ditu, eta bere seme nagusienak 30 eta txikiak 8 (iaz guregana etorri zena eta bere anai bikia).

**- Nolako da Tindufeko errefuxiatu-esparruko bizimodua?**

Adobeko etxeak, haimak, txapekin eta autoen atekin egindako txabolak, eta ahuntzak daude han. Zenbat eta ahuntz gehiago eduki, are eta aberatsagoa izan-

go zara. Ahuntzek esnea ematen dute eta gurin antzeko zerbait sortzen dute, eta urarekin nahastean lortzen den likido bat edaten dute egunean zehar, hemen kafea hartzen dugun bezala. Saharako gure etxean jende gazte asko bizi da eta oso giro ona egoten da beti. Etxeko ateak beti egoten dira zabalik, baita gauean ere.

**- Pozik bizi dira han?**

Han jaio eta hazi dira, eta bizitza zaila badute ere, inoiz ez dira kexatzen. Umeek Euskal Herrira etorri eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera izan dute, batzuk hemen ikasteko aukera eduki dute eta hemen geratu dira, baina beste batzuk etxera bueltatzea besterik ez dute buruan. Han



**BLANCA VIANA CAMPOS**

(HILARIO NAGOREren alarguna)

**I. URTEURRENA (2018-V-9)**

**"Agurrik ez, gero arte baizik. Betirako gure bihotzetan"**

FAMILIAKOAK

**Bere aldeko MEZA egingo da domekan, maiatzaren 12an, eguerdiko 12:00etan, San Pio elizan.**



egon ginenean lausengatu egin gintuzten, eta pultserak, mantak eta melfak (euren jantzia) oparitu zizkiguten, besteak beste. Ezkontza batera joateko aukera izan genuen eta esperientzia ederra izan zen.

**- Denetarik bizi izan duzue astebetean!**

Bai! Gainera, Jadyetuk hiru ahuntz zituen eta basamortura joan ginen ahuntzetako bat jatera. Beharrezkoa ez zela esan genion, baina tira. Auto batean 13 pertsona eta ahuntza sartu eta basamortuan barneratu ginen. Ahuntz gaixoak lepoa miatzatzen zingun, gertatuko zitzaiona jakingo balu...

**- Eurek errefuxiatu-esparrutik irteteko askatasuna dute?**

Ez. Basamortura irten ginenean Saharako poliziaren zain egon ginen puntu jakin batean eta, gero, gure alboan egon ziren han egon ginen bitartean.

**- Sahararrak euren lurraldetik kanpo bizi dira Tindufen eta belaunaldi berriek ez dute euren aberria ezagutzen. Nola bizi dute egoera hori?**

Ondo dakite atzean zer utzi zuten, nondik kanporatu zituzten eta nola. Txikitatik jasotzen dute horren berri eta nire ahizparen etxean egon zen neska batekin berba asko egin dugu politikaren inguruan.

**- Errefuxiatuen esparru batean bizitzean, nolako baliabideak dituzte Sahararrek?**

Hemendik bidaltzen diegun laguntzari esker jaten dute askok. Gu joan ginen sa-



“Errefuxiatuen esparruan bizitza zaila badute ere, inoiz ez dira kexatzen”

soi berean kamioi, autobus eta autoren bat ere joan zen Saharara eta hainbat elikagai eraman zituzten. Batzuk Alacanten geratu ziren aurrera egin ezinik.

**- Beraz, funtsezkoa da elikagaiak bartzeko kanpainetan laguntzea?**

Gutziz! Guretzat, askorentzat behintzat, 5 euro ez dira ezer, baina gutako bakoitzak 5 euro emanez gero gauza asko lortu ahal ditzakegu eurentzat. Orokorrean arrosa egiten dute lapiko handi batean eta hori jaten dute, eta ogi asko (oso gozoa gainera). Ez dute koilararik erabiltzen eta ogiarekin eramaten dituzte jakiak ahora. Lu-

rrean jarrita edo etzanda egiten dituzte gauza guztiak, baita bazkaldu ere.

**- Bestelako laguntzarik jasotzen dute?**

Hemen saltzen diren liburuekin jasotako diruarekin desgaitasuna duten pertsonen ikastetxeetan gosariak eskaintzen dira, adibidez. Bestetik, liburutegia, emakumeentzako tailerrak, ikastaroak eta beste hainbat gauzak daude.

**- Nor da errefuxiatuen esparruko gobernuaren arduraduna?**

Saharako gobernuak du ardura. Gu 4. kanpamenduan egon ginen eta autoan irteten ginen bakoitzean ‘protokoloa’ delako gune batean sartzen ginen partea emateko. Tindufeko aireportua Aljeriako lurraldean dago eta Aljeriako poliziak lagunduta egin genuen errefuxiatuen esparrura bidetia. Han Saharako poliziak hartu zuen gure ardura.

**- Tindufen pasatu duzun asteak markatu egin zaitu moduren batean?**

Askok! Oso aberasgarria izan da. Aurten ere Lahsan gurera etorriko da eta bere anai bikia ere etortzea nahi dugu. Tindufeko ume askok giltzurrun arazoak izaten dituzte, edaten duten uraren ondorioz, eta Lahsanen anaiak arazoak ditu. Nahiz eta aurretik lotura nuen Sahararekin, bidaia hau hunkigarria izan da.



## IGNACIO M<sup>a</sup> JIMENEZ GUIASOLA

2019ko apirilaren 26an hil zen,  
54 urterekin



FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**  
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



'La vejez' izeneko liburu argitaratu du Juan Sanchez Vallejok. *"Liburu hau ez da zahartzaroaren eta honek dakarren egoeraren gorazarrea. Ezta kontrakoa ere"*, dio liburuaren kontrazalean. Zahartzaroa ikuspuntu ezberdinetatik aztertu du Toledon jaiotako psikiatra eibartarrak eta nagusiak zaintzen dituztenak omendu nahi izan ditu, *"batez ere Ego Gain eta San Andres zentro geriatrikoko langileak"*.

**JUAN SANCHEZ VALLEJO (psikiatra):**

## **"Zahartzaroari ezkortasuna kendu nahi diot liburu berri honekin"**

**- Zahartzaroaren inguruko gogoeta egin duzu liburuan, baina nondik begiratuta?**

Liburuaren tituluak dena esaten du, baina ez du ezer zehazten. Azpituak, ordea, pista gehiago ematen ditu. *"Urteak bizitzari eta bizitza urteei"*, dio. Liburu honekin ez dakit zahartzaroari baikortasuna eman nahi diodan, baina bai ezkortasuna kentzea eta errealtatean kokatzea. Bizi-itxaropena izugarri hazi da eta adituek diotenez Espainiako batezbesteko adina 54 urtekoa izango da mende honen erdialdean, munduko lurralde adintsuena, beraz. Bestetik, Euskadin emakumeen bizi-itxaropena Europako altuenetakoa da. Beraz, aintzat hartzekoa da hemengo zaharren biztanleria dentsitatea eta gizartea ez dago horretarako prestatuta. Gizartea oso kontsumista da, oso azalekoa, eta pertsona nagusiengan zahartasuna eta axolagabekeria soziala bakarrik ikusten du. Zaharrek hori bakartasun eran sentitzen dute, baina ez dute berben bitartez azaleratzen.

**- Euren berezko egoera hori izan dela onartzen dutelako?**

Hori da! Zaharrek hedabideek esaten dietena onartzen dute, bere burua giza-hondakintzat hartzen dute eta bakartasun emozionalean murgiltzen dira.

**- Egoera horri aurre egiteko prestatzen gaitu liburuak?**

Liburuak baikortasun apur bat eman nahi dio egoera horri, gizarteak gai honen inguruan neurriak hartuko dituela pentsatuz. Alde positiboan, zahartasunera modu onean heltzen gara, izan ere orain dela 100 urte bizi-itxaropena 40 urtekoa zen.

**- Nola eman ahal diegu bizitza urteei?**

Zaharrei kasu eginez. Greziarren eta erromatarren aroan zaharrek agintzen zuten, adibidez. Gero eta urte gehiago bizi ahal bagara, are hobea, baina naturak ere badu zeresan hor.

**- Zergatik idatzi duzu zahartzaroari buruzko liburu bat?**

Orain dela 11 urte *'Senectud, divino tesoro'* liburua idatzi nuen, baina hainbat gauza falta zaizkiola konturatu naiz urte hauetan. Adibidez, zahartzaroa emakumeen ikuspuntutik lantzea. Zaharren zaintzaren inguruko gauzak ere falta ziren: nola zaindu, zaharrek nolako elikagai erregimena izan beharko luketen... Eta gazteek zahartzaroari buruz duten ikuspuntua ere faltan somatzen nuen. Hainbat pertsonaren laguntza jaso dut liburu berrian gai hauek jorratzeko. Isabel Lopez Aulestiak emakumeen ikuspuntutik landu du zahartzaroa, Mikel Diez Oregi psikologoak erresilientziaren eta zaintzaren arloa landu du, eta Asier Ezenarro gazteen ikuspegitik aztertu du gaia.

**- Beraz, liburua zahartzaroaren gida izan daiteke?**

Gazteek eta zaharrek ez dute zahartzaroaren ikuspuntu bera, beraz, gazteentzat baliagarria izan daiteke. Diez Oregik, adibidez, 4. adina kontzeptua aipatzen du bere testuan.

**- Bizi itxaropena hazten ari dela aipatu duzu. Zahartzaroan sartzen garen momentua ere aldatu egiten da?**

*"Noiztik gara zaharrak?"*, galdetzen dut liburuan. Jubilazioa izan daiteke irudizko lerro banatzailea, baina jubilatzen den pertsona oro ez da zahar sentitzen. Hor dago gakoa. Zein den zaharra eta zein sentitzen den zaharra.



"Linbo planeta" eguenean eskainiko dute.

## **Dantza garaikidea eskainiko dute gaur Coliseoan, Dantzaz konpainiarekin**

Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren baitan, gaur dantza ikuskizuna eskainiko du Dantzaz konpainiak Coliseoan, 20:30ean (5 euro). Era guztietako ikusleentzat pentsatuta dagoen "Bat" izenburukoan bat egingo dute konpainiaren azken ekoizpenak eta Eibarko ikasleekin batera landu dituzten piezak. Martitzenean, beriz, Anita Maravillas konpainiakoez txo-

txongiloak protagonista dituen "Jon Braun" taularatuko dute, 15:00etan Hezkuntza Esparruan. Ikuskizuna 4 urtetik gorako haurrentzat egokia da eta sarrera doan izango da. Eta eguenean Dejabu Panpin Laborategiak "Linbo Planeta" eskainiko du, 5 urtetik gorako haurrentzat. Antzezlanaren hasiera 15:00etan hasiko da, Hezkuntza Esparruan eta ez da sarrerarik ordaindu behar.





## Hodei Magoak girotuko du Ipurterre lehiaketako sari-banaketa

Eguaztenean jakinarazi dituzte aurtengo Ipurterre lehiaketako irabazleak: Oihernart Agirre Ferreira (LH 1-2, La Salle Isasi), Libe Teruelo Alonso (LH 3-4, San Andres), Nahia Jauregi (LH 5-6, J.A. Mogel), Aiora Goitandia Anitua (DBH 1-2, Eibar BHI) eta Maddi Sarasua (DBH 3-4, Eibar BHI). ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketako irabazleei saria emateko ekitaldia datorren astean, eguaztenean egingo da, 10:00etan Hezkuntza Esparruko aretoan eta joaten direnek Hodei Magoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute.



## Musika Eskolako ikasleak ederto ibili dira Madrilen

Marisol Arrillagarekin soinu ikasten duten ikasleek, azken urteotako ohiturari jarraituz, Aste Santuko oporrak aprobetxatu dituzte egun batzuk herritik kanpora joateko. Oraingoan Madrilerako plana prestatu zuten eta, handik bueltan esan digutenez, "hamabi lagun joan ginen, apirilaren 23tik 25era. Kalejira bat egiteko asmoa genuen, baina egunero euria, hotza... eta tarteka txingorra ere bai, azkenean ostatu barruan eta bakarrik gure buruarentzat jotzen ibili ginen. Hala ere, metroa hartu eta batetik bestera ibili ginen, Retiro eta beste hainbat toki ikusten eta nahi beste barre ere egin genuen!".

## Dantza Masterclassera joan zirenek goiz zoragarria pasatu zuten

Gipuzkoan Gazte Tour egitasmoaren eskutik, dantza masterclassa egin zen Ipurua kiroldegian. Argazkian Nerea Lodosarekin batera ikusten dituzuen neska-mutilek primerako goiza igaro zuten zapatuan, Donostiko Bamboo Dance eskolatik ikastaro trinkoa ematera etorri zitzaizen Leire irakaslearekin batera dantza kontuetan trebatzen.



## "Sherpak" aurkezteko kontzertua

Deus Ez taldeak bere lan berria, "Sherpak" izenburukoa aurkeztuko du kontzertuan bihar gauean, 23:30etik aurrera Ez Dok tabernan. 2016an sortutako rock taldearen bigarren diskoa Iruñeako Drum Groove Studio-n grabatu dute. Josu Ervitik nahastu, grabatu eta produktore lanak egin eta gero, Victor Sanchezek masterizatu du 10 abestik osatzen duten lana.



## Arantza eta Pantxoren musika Ametsan

Gaurtik hasita, asteburu osoan zehar ospatuko den 54. Euskal Jairako girotzen joateko asmoz, Ametsa tabernak kontzertua antolatu du gaur arratsalderako. 19:30etik aurrera Arantza eta Pantxo zuzenean arituko dira taberna parean, eskaintzen dituzten kantuak entzun nahi dituzten guztientzat.

## Alondra de la Parrari buruzko saioa

Pagatxa Emakumeen Elkartearen eskutik, astelehenean bideo-foruma egingo da Portalean (ikastaro gelan), 18:30etik 20:00etara. Emakumeen Istorioak egitasmoaren baitan antolatu duten saioan Alondra de la Parra orkestra zuzendariaren lana eta bizitza bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da. Ekitaldira sartzea libre izango da, nahi duten guztientzat.

## Baratze Bertikalak tailerra 21ean

Illunabarrian programaren barruan, ...eta kitto!-k Baratze Bertikalak tailerra antolatu du, Alluitz Naturaren eskutik eskainiko dena. Tailerra ...eta kitto!-ko lokaletan egingo da hilaren 21ean, martitzenean, 19:00etan hasita. Izena 943-200918 telefono zenbakian eman daiteke. Prezioa: 3 euro.

## Musika hizkuntza ikasteko metodo interaktibo berria aurkeztu dute

Juan Bautista Gisasola Musika Eskola-koek martitzenean aurkeztu zuten [aualvirtualmusica.com](http://aualvirtualmusica.com), musika hizkuntza irakasteko erabiltzen hasi diren metodo interaktibo berria. Elena Martin eta Roge Astigarraga musika irakasleek, Markos Juaristi zuzendari pedagogikoak eta Patxi Lejardi Kultura zinegotziak aurkezpenean esan zutenenez, *“musika hizkuntzarako metodo interaktiboa lau unitatek osatzen dute, ikastaro bakoitzeko 20 unitate didaktiko dira eta bost atal unitateko”*. Eibarko Musika Eskola metodo hau euskeraz erabiltzen aitzindaria izan da: *“Orain arte, Eskolan bertan prestatu eta editatutako liburu pedagogikoak erabili dira musika hizkuntza irakasteko, baina gaur egungo pre-*



*mietara egokitzeko asmoz, Udalak bi pantaila interaktibo handi erosi ditu, ikasleek sistema berri honekin ikasteko aukera izan dezaten”*.

Lehen Hezkuntzako haurrei nahiz helduei zuzenduta dago sistema eta oso harrera ona izan du, abantaila ugari izateaz gain: *“Besteak beste, ikasleak modu interaktiboan jardun dezake ikasten, pro-*

*gramak eskaintzen dituen joko ugarietan lehiatzen den bitartean. Horrela, gehientzat nahiko astuna den musika hizkuntza ikastea askoz ere erakargarriagoa egingo zaie. Horrekin batera, irakasleak klasetik kanpo ikasleak egiten duen lana kontrolatzeko aukera dauka eta sistema honek ikasketa pertsonalizatua ahalbidetzen du”*.

## Jon Maiak “Riomundo” nobelari buruz jardungo du martitzenean

Juan San Martin liburutegiak antolatutako gaztelerazko irakurketa klube-ko hurrengo saioa martitzenean izango da, 19:00etan Portalean (3. batzartokian) eta Jon Maia idazle eta bertsolaria gonbidatu dute solasaldira, “Riomundo” bere nobelari buruz berba egiteko. Peru Magdalenak gidatuko du saioa eta irekia izango da, joan nahi duten guztiengiztat. Maiak idatzi zuen lehen eleberri honetan, frankismo garaiko bizi baldintzek derrigortuta euren jaioterria laga eta Euskal Herrira etorri behar izan zuen be-

re familiaren historia kontatzen du. Idazlearen berbetan, *“lur ezezagun hontara, bizibide hobearen bila zetozen milaka eta milaka emigrante familia horietako baten istorioa da honakoa. Maletaz eta istorioz zamatuta trenetik jaitsi eta Vascongadas izeneko lur arrotz eta amiltsuan bizitzen jarri zen familia baten abentura. Gaur egun, munduko edozein bazterretan gertatzen ari den bezalaxe, Euskal Herriaren historian berebiziko garrantzia izan duen fenomeno batean girorutako nobela da hau”*.



Aurreko barixakuan zabaldu zituzten erakusketak.

## Argazki rallya egingo da domekan

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik martxan dagoen “Argazkilaritza Maiatzean” egitasmoaren baitan, domekan jokatuko da Argazki Rallya. Klub Deportiboaren parean hasi (08:30etik 09:30era) eta amaituko (14:30ean) da proba eta bi kategoria bereiziko dituzte: zuri-beltza paperean eta digitala koloretan. Parte hartzeko ize-na ematen dutenek (kuota 10 eu-

rokoa da, doan gazteentzat) agindutako derrigorrezko ibilbidea bete beharko dute eta argazkietarako gaiak ere antolatzaileek emango dizkiete. Modalidade bakoitzerako banatuko diren sariak hauek dira: lehen bildumarentzat, 80 euro eta ikurra; bigarren bildumarentzat, 60 euro; hirugarren bildumarentzat, 50 euro; eta Sozial Saria eta Gazte Saria (50 euro).



**Anthony Blake magoa ELGETAKO Espaloian**

Bihar, zapatua, gaueko 22:00etan; eta etzi, domeka, arratsaldeko 18:00etan. Bi saio eskainiko ditu asteburu honetan Anthony Blake mago handiak aurretik ere behin baino gehiagotan izan den kafe-antzekian. Kultur Hiruk ekarriko du oraingoan mentalista eta sarrerak www.kulturhuru.eus orrian erosi daitezke eta Eibarren baita Kultu tabernan ere. Aurrez erosita 18 eurotan lortu daitezke eta, bestela, txarteldegian 22 eurotan. 2005ean Elgetan egin zen Magia Mostra inauguratu zuen Blakek eta beste lau alditan izan da Espaloian, azkena 2013an. Mentearen magoak 30 urteko ibilbidea osatu du dagoeneko.



**Boxeo-jaialdia bihar ELGOIBARREN**

Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, arratsaldeko 19:30ean hasita, sei borroka hartuko dituen boxeo-jaialdia egingo da, gizonezkoen amateur mailako bost lehia eta profesional arloko emakumezkoen artekoa hartuko duena. Azken horretan Ixa Rodriguez soraluzetarrak borrokatuko du Ukrainiako Oksana Romanovaren aurka. Lehenengo borrokan Mikel Cid pisu astuneko eibartarrak hartuko du parte.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Carlos Fernandez Fernandez. 84 urte. 2019-IV-15.
- Raimundo Zelaia-Zugadi Illarraga. 99 urte. 2019-IV-19.
- Delfina Zatika Erkiaga. 88 urte. 2019-V-1.
- Juanita Arrieta Arizaga. 92 urte. 2019-V-2.
- Hilario Lamas Fernandez. 90 urte. 2019-V-3.
- Estefania Hernandez Andres. 99 urte. 2019-V-3.

**jaiotakoak**

- Markel Feijoo Fernandez. 2019-IV-29.
- Naomi Velasquez Cogollo. 2019-V-3.
- Nere Oria Iñan. 2019-V-5.
- Pol Alberdi Minondo. 2019-V-5.

**farmaziak**

- Barixakua 10  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Zapatua 11  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Domeka 12  
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Astelehena 13  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 14  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 15  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguena 16  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Barixakua 17  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2019AN-  
 Zulueta (San Agustin, 5)

**SUDOKUA**

AURREKOAREN EMATZA

3	5	4	1	8	6	2	7	9
2	7	6	4	9	3	5	8	1
8	1	9	7	2	5	4	6	3
6	9	1	5	4	8	3	2	7
4	3	7	2	6	9	8	1	5
5	8	2	3	1	7	9	4	6
7	4	8	9	3	1	6	5	2
1	6	3	8	5	2	7	9	4
9	2	5	6	7	4	1	3	8

8		7		5	6			3
9			2			7		
	2	1						
		6	9			5		
		9		2		8		
		4			7	1		
						3	1	
		5			8			7
4			7	3		9		5

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

**Barixakua 10****54. EUSKAL JAIA**

**17:00/20:00.** Kalian Jolasian eta Musika Auzoz Auzo (Zunbalain), gurasoentzat eta 5-8 urte bitarteko haurrentzat. Eibarko Bizikleta Plazan.  
**20:15/03:00.** Kontzertuak: Cloverwind (20:15/21:45), Egurra eta kitto (23:00/00:30) eta Mugi Panderoa (01:00/03:00). Untzagako karpan.

**MITINA**

**18:30.** PSE-EEren ekitaldi politikoa, Fernando Grande-Marlaska, Idoia Mendia, Denis Ixaso eta Miguel de los Toyosekin. Txaltxa Zelaian.

**KONTZERTUA**

**19:30.** Arantza eta Pantxo. Ametsa tabernan.

**DANTZA**

**20:30.** "Bat" (Dantzaz). 5 euro. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Coliseoan.

**Zapatua 11****54. EUSKAL JAIA**

**10:00/14:00.** Artisau eta Baserritarren Azoka. Herri-kirolak+bertsolariak. Toribio Etxebarria kalean.  
**18:30.** Eibarko Musika Bandaren Euskal Jaiko kalejira eta kontzertua.  
**19:30/21:30.** Trikipoteoa, Eibarko Trikitilari Gazteekin.  
**21:30/03:00.** Kantu-afaria eta erromeria. Untzagako karpan.

**MANIFESTAZIOA**

**12:00.** Pentsio duin eta publikoen aldekoa, Debabarreneko Pentsionisten Plataformek deituta. Untzagatik abiatuta.

**TAILERRA**

**18:00.** Umeendako eskulan tailerra, doan. El Corte Inglesean.

**KONTZERTUA**

**23:30.** Deus Ez taldearen kontzertua, "Sherpak" aurkezteko. Ez Dok tabernan.

**Domeka 12****ARGAZKI RALLYA**

**08:30/09:30.** Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan. Zuri-beltzean (paperean) eta digitala koloretan. Irteera eta amaiera: Klub Deportiboan.

**54. EUSKAL JAIA**

**12:00.** Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik hasita.  
**12:30.** Dantza erakustaldia, Iruñeako Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeen eskutik. Untzagan.  
**14:30.** Herri-bazkaria. Untzagako karpan.  
**17:00.** Erromeria.  
**19:00.** Larrain-dantza popularra. Untzaga plazan.  
**19:30.** Fernando Abanzabalegiri omenaldia: musika, dantza eta bertsokak + Larrain-dantza popularra. Depor parean.

**KONTZERTUA**

**12:30.** Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzagan.

**IKASTETXE PATIOEN IREKIERA**

**16:00/20:00.** Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu ikastetxeen patioak zabalik.

**Astelehena 13****IKASTEN**

**10:30.** Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

**ELKARRETARATZEA**

**12:00.** Jubilatuta eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

**BIDEO-FORUMA**

**18:30.** Emakumeen Istorioak: Alondra de la Parra orkestra zuzendaria. Pagatxa emakumeen elkartearen eskutik. Sarrera libre. Portalean (ikastaro gelan).

**Martitzena 14****IKASTEN**

**10:00.** "Saturrarango emakumeak oroimenean" hitzaldia, euskeraz, Amaia Ugarte eta Xabier Basterretxearen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

**LA SALLEK 300 URTE**

**11:30.** Salleko Joan Bataiatzailea hil zela 300 urte bete direla-eta, Eibarko La Salleko kideek koreografia bat dantzatu eta manifestua irakurriko dute. Untzagan.

**ANTZERKIA**

**15:00.** "Jon Braun" (Anita Maravillas). 4 urtetik gorako haurrentzat, txotxongiloekin. Doan. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

**IKASTEN**

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**SOLASALDIA**

**19:00.** Jon Maiarekin solasean: "Riomundo". Gaztelerazko irakurketa kluba. Portalean (3. batzartokian).

**Eguaztena 15****IPURTERRE SARIAK**

**10:00.** Irabazleei saria banatzeko ekitaldia, Hodei Magoarekin. Hezkuntza Esparruko aretoan.

**SAN ISIDRO EGUNA**

**11:00.** Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Ondoren, prozesioa eta aureskua, Kezka Dantza Taldearen eskutik. Jarraian, txakolina, sagardoa, gazta eta aire librean hazitako basatxerri ezaugarria duten txerriekin dastaketa.  
**12:30.** San Isidroetako XVII. Aizkolari Txapelketa. Tartekatuta, harrijasotzaileen saioa.  
**14:30.** Bazkaria Kantabria jatetxean. Jarraian, bertsolariak eta trikitilariak.  
**17:30.** Idi-demak. Arraten.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

**DANBORRADAKO ENTSEGUA**

**19:00.** Umeen entsegua.  
**20:00.** Nagusien entsegua. Bittor Sarasketako 7an (Beistegi eraikinean).

**Eguena 16****IKASTEN**

Esperientzia Eskolaren ikasturte amaierako irteera: bisita gidatuak Arabako Lau Bitxiak eta Agurainen.

**ANTZERKIA**

**15:00.** "Linbo Planeta" (Dejabu Panpin Laborategia). 5 urtetik gorako haurrentzat. Doan. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

**KALEETAN KANTUZ**

**17:00.** Dantza entsegua.  
**19:30.** Abesbatzaren entsegua San Andres elizako lokaletan.

**AURKEZPENA**

**19:00.** "Maisu armaginak, urdinez jantzitako artisauak" ikus-entzunezko eta jokoa. Armagintzaren Museoa.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, PERU, hillaen 2xan 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo pillua famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!!!



Zorionak, LAIA, apirillaren 30ian 5 urte bete zenduaz-en-eta!!! Musu haundi bat famelixaren partez. Asko maite zaittugu!!!



Zorionak, AMAIA, hillaen 13an 10 urte egingo dozuz-en-eta. Laztan bat famelixaren eta, batez be, Gorka zure nebaren partez.



Zorionak, DANEL, bixar 12 urte beteko dozuz-en-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Aner anaixaren eta Noa eta Lukaren partez.



Zorionak, MAIALEN, hillaen 7xan 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Joneren partetik.




Zorionak, ANDER!, gure etxeko haundixak bixar 4 urte beteko ditto-eta. Amama, aitxitxa, aitta, ama eta Danelen partez.



Zorionak, EÑAUT, bixar 8 urte beteko dozuz-en-eta: Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, CAROL, hillaen 6xan 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LIBE! Domekan 4 urte beteko dozuz-en-eta. Musu erraldoi bat etxeko danon partez.



Ongi etorri, POL, maiatzaren 5etik gure artian zagoz-en-eta. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, IBAI eta MAREN!!! Musu haundi bat zuen famelixaren partetik.

**(1 ARETOAN)**  
11n: 17:00, 19:45  
12an: 17:00  
13an: 20:30

**"Keepers. El misterio del faro"**

Zuzendaria: Kristoffer Nynolm



**(2 ARETOAN)**  
11n: 17:00  
12an: 17:00  
13an: 20:30

**"Victoria, 3 de marzo"**

Zuzendaria: Victor Cabaco



## Erakusketak

**Maiatzaren 26ra arte:**

- JUAN MIGUEL ALBA MOLINA, ANDRES INDURAIN ETA LUIS CAMACHOREN ARGAZKIAK (*Portalea*)
- JOSE IGNACIO DE CASTROREN ARGAZKIAK (*Topaleku*)

**Maiatzaren 31ra arte:**

- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN ARGAZKIAK (*El Ambigú eta Portalea taberna*)
- ARGIZAIOLA SARIA 2018KO ARGAZKIAK (*Deportibo taberna*)
- EMILIA VALENCIAREN ARGAZKIAK (*El Corte Inglés*)
- NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA (*Untzagako Jubilatut Etxea*)

**Ekainaren 2ra arte:**

- "EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942" (*Eibarko Armagintza Museoa*)

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
11n: 22:30  
12an: 20:00

**"La espía roja"**

Zuzendaria: Trevor Nunn



**(2 ARETOAN)**  
11n: 19:00, 22:30  
12an: 20:00

**"Vengadores. Endgame"**

Zuzendaria: Anthony Russo



**(ANTZOKIAN)**  
11n: 17:00  
12an: 17:00

**"UglyColls"**

Zuzendaria: Kelly Asbury



**(ANTZOKIAN)**  
11n: 19:45, 22:30  
12an: 20:00  
13an: 20:30

**"La pequeña Suiza"**

Zuzendaria: Kepa Sojo



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m<sup>2</sup>. Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren irailetik aurrera. Lau lagunentzako. Tel. 634-419894.

– Pisua alokagai Eibarko Bidebarrieta kalean. 3 logela eta 2 komun. 110m<sup>2</sup>. Altzari guztiekin. 800 euro, garajea aukeran (120 euro). Tel. 607-534881.

– Logela edo apartamentua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 665-019842.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Urki auzoan. Gazteendako edo biltegi moduan erabiltzeko. 140 m<sup>2</sup>. Margotu berria. Prezio onean. Tel. 643-298749 eta 639-540641.

– Txirula taberna alokatzen da Ipuruia inguruan. Tel. 630-644175.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu handia eta erreferentziak. Tel. 671-316837.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 688-842791.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 632-552394.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-130135.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-959575.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-747039.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiria eta 5 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 616-809926.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-247272.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 642-498359.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 678-110861.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-715164.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 665-257468.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Erreferentziak. Tel. 602-380040.

– Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko (sukaldari, kamarera, laguntzaile). Urte askotako esperientzia. Baita etxeko garbiketarako egiteko ere. Tel. 695-243883. Milagros.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.

– Mutila eskaintzen da mendian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 632-725140.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Ziurtagiria eta esperientzia. Tel. 626-407923.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 604-293167.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-339525.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-235225.

– Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 665-257468.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 603-715164

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-464072.

– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-090793.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-480376.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Ziurtagiriarekin. Orduka. Esperientzia. Tel. 667-060292.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 602-115184. Carolina.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 677-895202. Ana Iris.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-360043.

– Mutila eskaintzen da gidari jarduteko, baserri-lanak egiteko eta pintore moduan. Tel. 612-220276.

– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 643-961051.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko egunero bi ordu. Tel. 617-571210.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaroa egindako ziurtagiria. Ordu-tegi malgua. Tel. 605-402030.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Erreferentziak. Tel. 689-571882 eta 666-197831.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-923543.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-571335.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-303155.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-360043.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 698-571054.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-759693.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-173487.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.

– Emakumezkoa eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. Tel. 688-714388.

– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-988471.

## 4.2. Langile bila

– Pertsona behar da ume txikia zaintzeko. Tel. 687-588975.

– ...eta kitto-k banatzaileak behar ditu, normalean barixakuetan egiten den astekararen banaketarako. Tel. 943-206776 eta 943-200918. banaketa.etakitto@gmail.com

– Pertsona euskalduna behar da arratsaldez garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 610-916377 eta 685-758622.

– Estetizista behar da, manikura eta pedikura esperentziarekin. Whatsapp 603-344258.

– Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Bidali kurrikuluma: olamarsan@gmail.com

– Kamarera/o behar da taberna batean. Tel. 695-690784.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Ekainetik aurrera oinarriko katalana irakasteko prest dagoen norbaiten bila nabil. Tel. 637-124479.

– Japoniar irakaslea behar da 0 mailatik hasteko. Tel. 665-708193.

### 5.2. Eskaintzak

– Neska euskalduna eskaintzen da uztailean LH eta DBH ikasleei errefortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.2. Eman

– Musika-ekipoa eta osagarriak oparitzen dira. Tel. 685-758326.

– 9 asteko txakurkumea oparitzen da, bere osagarri guztiekin. Lehenengo txertoa jasota. Tel. 626-249512.

### 6.4. Bestelakoak

– Autoa konpartitzerik? Goizero Eibar-Erreterria 06:45ean. 14:30 inguruan buelta. Tel. 680-626296.

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

Zurekin

# GIPUZKOA

gara

## Ekitaldia

Maiatzak 16 de mayo

☀ Txaltxa zelaiko plaza

🗺 Portaleko areto nagusia

20:00 · Eibar



ehbildu

# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



**bista eder**  
clinica dental - horts klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)